

# GIZA ESKUBIDEEN ALDEKO BORROKA BERRIAK GIZARTE ALDAKETAN



**Mundubat**

[www.mundubat.org](http://www.mundubat.org)

argitartzen du:



**Mundubat**  
[www.mundubat.org](http://www.mundubat.org)

diru-laguntza:



**Donostiako Udala**  
**Ayuntamiento de San Sebastián**  
Berdintasun eta Lanikidetzeta Atala  
Sección de Igualdad y Cooperación



**Gipuzkoako Foru Aldundia**  
**Diputación Foral de Gipuzkoa**  
Kiroletako eta Kanpo Ekintzako Departamentua  
Departamento de Deportes y Acción Exterior

**EUSKO JAURLARITZA**



**GOBIERNO VASCO**

ENPLEGU ETA GIZARTE  
GAIETAKO SARIA  
Gazteari Lanikidetzarako Zuzendaritza

DEPARTAMENTO DE EMPLEO  
Y ASUNTOS SOCIALES  
Dirección de Cooperación al Desarrollo




# aurkibidea

|          |  |
|----------|--|
| 4. orr.  | 1 Sarrera  |
| 6. orr.  | 2 Borroka berriak  |
| 8. orr.  | 2.1 Alternatiben Munduko Foro> Carlos Tablada              |
| 14. orr. | 2.2 Honduras > Estatu Kolpearen aurkako Fronte Nazionala   |
| 18. orr. | 2.3 Mexiko > Comité Cerezo                                 |
| 22. orr. | 2.4 Argentina > HIJOS                                      |
| 26. orr. | 2.5 Colombia   |
| 2. orr.  | 2.5.1 MOVICE   |
| 31. orr. | 2.5.2 CRIC eta ACIESNA                                     |
| 34. orr. | 2.5.3 FENSUAGRO  |
| 38. orr. | 3 Foroaren ondorioak                                       |
|          | ”Giza Eskubideen Aldeko Borroka Berriak Gizarte Aldaketan” |

# sarrera



# Giza Eskubideen Aldeko Borroka Berriak Gizarte Aldaketan



1948an Giza Eskubideen Adierazpen Unibertsala sinatu zenean, pertsona guztiek, inolako bereizketarik egin gabe, eskubideak zituztela berretsi eta onetsi egin zen. 60tik gora urteren ondoren, oraindik ere giza eskubide horiek munduko herrialde gehienetan urratzen dituzte. Merkantilizazioa nagusi den mundu honetan, iluntasunak, kontraesanak edo hutsuneak dauzkan arren, giza eskubideen diskurtsoa premiazko gida da oraindik, herrien borrokei elkertasuna adierazteko orduan. Urraketak agerian utzi behar dira, baina giza eskubideen urraketa horiei aurre egiteko ekintzak ere bai. Izan ere, sistema neoliberalaren urraketari aurre egiteko borroken zilegitasuna defendatu behar dugu.

Ekonomiako sektore pribilegiatuen ustez, krisi globala krak finantzarioa da. Krisi horri, ordea, biktimen ikuspegitik begiratu behar diogu, batez ere. Alde horretatik, herrialde txiroentzat ez da lehen krisi handia, eta ondorioak ere ez dira berriak. Gaur egungo globalizazioaren eta gizadiaren zein planetaren krisi bihurtutako gaur egungo krisiaren ondorioak genozidioan, etnozidioan eta ekozidioan daude agerian. Globalizazio hori larderiatsua da, harrapatu eta baztertu egiten gaitu aldi berean, bere sistemari eusteko eta oposizioak desgaitzeko eraldaketak agintzen ditu eta merkatuaren arrazionaltasunetik zein metaketa kapitalistatik kanpoko ongizaterik ez dagoela adierazten du. Alternatibarako aukerarik eta lekurik ez dagoela esaten digute.

Hala ere, gaur egungo ereduak ez da hain ahalguztiduna. Bertako legeen barruan ez dago jende guztiarentzako irtenbiderik. Besteak menderatuta daude. Ez dago horizontaltasunik, azpian daudelako. Egoera hori aldatzeko, aldaketarako alternatibaren eraketa babestu eta sustatu egin behar ditugu. Beste era bateko globalizazioa sustatu beharra dago. Sistema honen logika suizidari aurre egitea ez da zenbait talderen aukera urruna, guztion premia baizik.

Ohiko menderakuntzei aurre egiten dieten subjektuek, erakundeek eta gizarte-mugimenduek sortutako erresistentzia anitzak aldaketa horretarako bidea urratzen ari dira. Behetik boterea sortzen duen alternatibaren alde egiten dute. Giza eskubideen aldeko apustu alternatibo hori, gainera, alteritatean eta guztion onespean egon behar da oinarrituta.

Beste eredu bat eratu behar dugu besteekin, eurekin batera Giza Eskubideak defendatzeko eta defentsa horretan guztion biziraupena eratzeko. Aukera bakarra da, hautaketagatiko etika eta premiagatiko betebeharra kontuan hartuta. Horra hor alterglobalizazioa, beste globalizazioa, kapitalismoaren aurkako alternatibarako iragaitza, alegia.

Mundubat-ek oinarritzko erakunde horiei ematen die babesa, kapitalismo neoliberalak, enpresa transnasionalek eta gobernu konplizeek urratutako eskubideak errespetatzeko borrokatzen dira-eta. Testuinguru horretan, 2009ko urrian “Giza eskubideen eta gizartealdaketaren aldeko borroka berriak” foroa antolatua genuen, eta, bertan, Honduras, Mexiko, Kolonbia, Argentina, Salvador, Mendebaleko Sahara, Brasil, Palestina eta Europako erakundeak eta mugimenduak elkar-tu ziren. Mugimendu horiek erresistentziak sustatzen dituzte, eta globalizazio neoliberalerako proposamen alternatiboak eskaintzen dituzte. Dosierrak foroaren beraren izenburua aukeratu du, borroka horiei buruzko hausnarketan berri emateko. Izan ere, elkarrekin lan eginez gero, beste mundu bat eratuko dugu, eta pertsona guztien eskubideak errespetatuko dira bertan.



elkarrizketak



CRECER  
PARA LA VIDA

PA

**Carlos Tablada**  
**Alternatiben Munduko Foro**



KAN NEJEWAWA  
PAMATABEJEN



---

## Carlos Tablada

*Habanako Unibertsitateko irakasle titularra.  
"Beste Davos bat" eta  
"Alternatiben Munduko Foro" –aren sortzailea.*

---

Nolako ondorioak izan ditu krisi honek giza eskubi-  
deen ikuspegitik? Sistema neoliberalaren beste krisi  
zikliko bat ote da?

Krisiak sistema kapitalistako bertako mekanismoaren osagaiak dira. Kapitalismoak krisiak erabiltzen ditu, "zaharkitutako" taldeak eta lan-tresnak suntsitzeko, ez dutelako behar beste irabazirik ematen ikuspegi kapitalistatik errentagarriak izan daitezzen, nahiz eta taldeen premiei aurre egiteko tresna eta prozesu baliagarriak diren. Nahikoa ez denean, gerrak egiten dituzte, eta milioika lagun akabatzen dituzte, XX. mendean gertatu den bezala: Munduko Lehen Gerra 1873ko krisi kapitalistaren goren-unea izan zen; eta Munduko Bigarren Gerra, 1929ko Krakarena.

Krisi honek ohiko ezaugarri horiek ditu, baina beste asko ere bai. Munduko ekonomia kapitalista 70eko hamarkadan hasi zen desregularizatzen. Gerra Hotzaren eta mundua menderatzeko eromen inperialaren ondorioz, AEB Vietnamgo gerran sartu zen. Oso gerra garestia izan zen "inperioarentzat", pertsonak, giza baliabideak, eta baliabide materialak kontuan hartuta. Inperioak ezin zion gerra horri eutsi, baina ez zuen onartu nahi Asiako hegoaldeko herria menderatu ezin zuenik. Hori dela eta, Vietnamgo gerraren faktura igorri zioten munduko ekonomiari. Nixon administrazioak urrea/dolarra parekotasuna apurtu zuen, dolarrek parekotasun hori errespetatu gabe jaulki ahal izateko (parekotasun hori 1929ko Krakaren ostean ezarri zuten erregulazio-neurri moduan, horrelako beste hondamendi bat saihesteko).

Horrelaxe hasi zen maila handiko ekonomia ideia



neoliberalen arabera garatzen. Gainera, egoera hori sendotu egin zen bloke sobietarra desagertu zenean eta Washingtongo hitzarmena ezarri zenean. Nola ez, Washingtongo hitzarmenaren irizpideak ezarri zizkion munduaren gaineratikoari, baina euren buruari ez, ordea. Beraz, espekulazio-maila handira eramane zuten ekonomia eta benetako ekonomiatik aldendu zuten. Dirutza handia zirkulatzen hasi zen, eta, ordenagailuak ugaritzean eta Internet hedatzean, milaka, milioika dolarreko eragiketak segundo gutxitan egin ahal zirenez, ekoizpenarekin inolako zerikusirik ez zuten fikziozko baloreak sortu ziren. 2001. urtean, ordea, Internet bidezko espekulazio-burbuilak eztanda egin zuten. 2007an, oster, higiezin burbuilak egin zuten eztanda. Horren guztiaren ondorioz, krisi finantzarioa, krisi ekonomikoa, oso krisi sozial sakona eta klima-krisi bateratua sortu dira planetan, eta, gaur egun, kapitalaren zurrumbiloaren ondorioz igorritako toxikoen kopurua lurra bere gain hartzeko duen gaitasuna baino handiagoa da. Hau da, kapitalismoak lurra gaitasun hori gainditu zuen, eta 15etik gora urte daramatzagu lurra berritu ditzakeen baino baliabide gehiago lurretik bertatik ateratzen. Hori dela eta, suizidiora, hilketara eramane dugu planeta.


Bestetik, krisi hau oso txarto administratuta dago. AEB errudunak izan ziren, gaur egun krisian eta atzeraldian dauden munduko herrialdeen %80 baino gehiago "kutsatu zituen". AEBek hartu dituzten neurrien helburua ez da krisiari aurre egitea, enpresari kapitalista txiki eta ertainei laguntzea eta ekoizten zein lan-iturria sortzen jarraitzeko kredituak ematea. AEBek enpresa handiei eman dien diruaren helburua ez da berriro ekoizten hastea eta bizitza osoan zehar lan egin ondoren kapital neoliberalaren ondorioz guztia galdu duten erretiratu eta pentsiodun estatubatuarrek euren pentsio-fondoak berreskuratzea. Gobernuak ia ia 800.000 milioi dolar eman die krisia sorrarazi eta diru hori paradisu fiskalarako lapurtu duten banku espekulatuak berberei.

Beraz, nire uste apalean, 2010ean atzeraldia egongo da berriro, eta krisia sakondu egingo da: ekonomikoa,

finantzarioa, klimatikoa, elikagaien eskasia... 1960. urtera arte, goseteak lehorteen, pandemien eta gerren ondorioz gertatzen ziren. Gaur egun, ordea, planetako biztanleok behar dugun baino bost aldiz elikagai gehiago ekoiztu arren, mila milioitik gora lagun goseak hiltzen daude. Hain zuzen ere, sistemak sortutako eromenagatik eta irabaziak lortzeko bakarrik ekoiztu eta banatzeagatik gertatu da hori guztiori.

**Zure ustez, krisia nolabaiteko aukera-leiho izan daiteke? Gauza positiborik atera daiteke?**

Txinera, "krisia" hitzak kontzeptu hori dauka, "arriak eta aukera" esan nahi duten bi hitzek osatzen dute. Txinatar batentzat, tragedia barik, aurrera egiteko prest egoteko zerbait da krisia. Horra hor mendebaldearen eta Txinaren arteko aldea. Krisiak Txinan eragin handiena edukiko zuela iragarri zuten, munduko esportazio-ekonomia handiena delako, Alemaniaren aurretik ere. Azken urtean, Txinak %30 gutxiago esportatu du. Horren ondorioz, edozein herrialdek atzera egingo luke, bertako ekonomia bete-betean geldituko litzateke. Txinan, ordea, ez da halakorik gertatu, Txinako gobernuak barne-merkatua garatzeko aukera ikusi zuelako: 546.000 milioitik gora dolarreko "garapen-biderako plana" aurkeztu zuten bi urterako. Diru horren bidez, errepide-sistema osoa eraiki eta konpondu egin zuten; bideak, tren eta trenbideak garatu zituzten; eta ospitale zein polikliniken kopurua bikoiztu zuten. Hori dela eta, zeregin horietarako kontratazio berriak egin behar izan dituztenez, lanpostu berriak sortu dituzte. Beraz, bertako industria barne-merkaturantz birmoldatzen ari dira, eta gizarte-maila ertain sendo samarra garatzen ari da. Era berean, klima-arazoaren inguruko planak ere aurreratzen ari dira, jakin badakitelako ikaragarri kutsatzen ari direla euren atmosfera. Bertako airea nekez arnastu daiteke, ibaiak, itsasoak... Hori dela eta, lurren kutsadura garbitzeko planak garatzen ari dira, energia eolikoa eta eguzki-energia garatzen ari dira... Azken batean, inbertitzen ari dira. Emaitza: krisia baino lehen Txinako ekonomiaren urteko batez besteko hazkuntza %8koa bazen, %7,1ekoa zen 2009ko lehen hiruhilekoaren amaieran. Munduko adituek ez dute



inolako zalantzarik, urte honen amaieran %8 bera lortuko dutela esatean.

Horra hor aldea. Horixe bera da mendebaldean falda den erantzuna. Horrexegatik sortu dira krisi bortitzena, atzeraldi handiena, bankuen porrota, langabezia-tasa handiagoa... Iragarpena oso ezkorra da.

**Seattleko protestaldien ostean, beste globalizazio baten aldeko mugimendua gero eta ageriagoan dago. Alternatibean Munduko Foroaren sortzaile moduan, zertan datzan azalduko diguzu?**

90eko hamarkadan, bloke sobietarra desagertu zenean, kapitalismoak erabateko garapena lortu zuen. Porrot horren ondorioz, jende asko desmoralizatu eta itzali egin zen. Intelektual asko eta asko, pertsona zintzo asko zapalduta sentitu ziren, kapitalismoak indibidualismo ankerraren garapena sustatu zuelako, gainera.

Hasiera batean, neoliberalismoak luzaroan iraungo ez zuela uste izan genuen, planetaren suntsipenaren prezioa oso handia zela eta horrek eztabaida egin behar zuela. Aldi berean, ohiko alderdi politikoak ez beste erantzun berri batzuk sortzen ari zirela ikusi genuen oinarritzko erkidegoetan eta ia-ia herrialde guztietan, baina batez ere, Amerika Latinoan. Orduan, honako hauxe pentsatu genuen: "zergatik ez ditugu intelektualetan eta gizarte-mugimendu berriak elkartzen?". Intelektual horiek maila teorikoan ezjakintasun handia zuten gizarte-mugimenduei eskaini ahal zieten teoria.

Bestetik, aldi berean, ideien, liburuen eta jakintzen arloan zeuden intelektualetan laster konturatu ziren ezagutzen ez zuten eta ulertzen hasi ziren errealitatea zegoela. Hemen, Europan, garai hartako mugimendua asko Erdialdeko Amerikara, Nikaraguako Iraultzara, Salvadoroko Farabundo Martí Frontera... joan ziren. Uztarketa hori, hain zuzen ere, Alternatibean Munduko Foroaren jatorria izan zen, eta ideiak nahiz pentsaerak trukatzeko du helburu, antolatzen ikasi dezagun. Horrela, gizadia ere salbatu ahal izango dugu, kapitalista



horiek hain arduragabeak direnez, ez direlako konturatzaren euren erruz planetan bizitzerik ez dagoela.

Sare hau antolatatu genuen, eta sentsibilitate bereko jendea elkartu genuen bertan. Horiek horrela, Munduko Gizarte Foroa sortu zen, eta, mende-hasieran, zeresan handia eduki zuen, elkar ezagutzen ez zuten erakundeak biltzeko orduan. Topagunea eta ideien trukerako eremua eskaini genizkien, hain zuzen ere.

Gizarte-mugimenduak zer neurritaraino dira alderdiek zenbait herritarren gaur egungo aldaketaskariei aurre egiteko duten ezintasunari emandako erantzuna?

Amerika Latinoan, bete-betean garatu dira mugimendu berri horiek, modu integralagoan, gainera. Herrialde horietan, jatorrizko kulturen eta herrien manipulazioa handi-handia izan denez, demonizatu egin nahi izan dituzte. Urteotan, hiru batzar eratzaile egin dira Amerika Latinoan, eta, bertan, estatu horien oinarritzko legeak idatzi dituzte berriro. Orain, ordea, jatorrizko herriak eta ingurumenaren zainketa hartu dituzte kontuan. 200 urteko errepublikan lehen aldiz, Amerika Latinoan jatorrizko herrietako kide bat heldu da presidentetzara: Evo Morales, Bolivian. Nolabait esateko, gizarte-mugimenduek protagonismoa eta boterea eskuratu dituzte, kapitalaren eta merkatuaren logikan sartzen den antolaearen garapen eta sakontasunerako botere hori nahastean. Oinarritzko giza premiei aurre egiteko zer bilatzen dugun jakin behar dugu: herri kixua inkek dioten "bizimodu ona", "ondo bizitzea". Horixe da helburua.

Mugimendu feminista sistema patriarkal neoliberalaren alternatiba bat ere bada. Nolako itunak eta harremanak daude mugimendu feministaren eta mugimendu alterglobalizazioaren artean?

XX. mendean, emakumeen iraultza izan zen egitate garrantzitsuenetakoa. Kapitalismoak zenbait gauza on ere ekarri zituen gizakientzat: banan-banako askatasunak ikaragarri garatu zituen, eta, banan-banako askatasun horietatik, bete-betean garatu zuen emaku-

meen autonomia-akera. Nire ustez, XX. mendeko lorpen handienetakoa izan da emakumeak "bigarren mailako" gizakiak eta objektu sexual hutsak ez direla onartzea. Nire iritziz, emakumeek historian protagonismo handiagoa izan balute, ez zen kapitalismorik eta gerrarik egongo. Emakumei gaur egungo krisia konpontzen uzten badiegu, ziur nago emakumeek kapitalismoaren osteko gizarte bidezkoagora eramango gaituztela. Emakumeek gizarte-mugimenduetako kideak dira, garatzen ari garen proiektu utopiko honetan parte hartzen dute, kapitalismoaren osteko ideiak eta pentsaera kritikoa garatzeko, hain zuzen ere.

Zuk esan duzunez, alternatiba asko Amerika Latinoko ezker berrietatik sortzen ari dira. Nolako zeresana du ALBAk herrien giza eskubideen ikuspegitik?

ALBA erakunde berria da erabat. Historian lehen aldiz, herrialdeen arteko erakundea garatu da. Bertan, hain zuzen ere, ez zaie irabaziei lehentasuna ematen, eta garrantzitsuenak ez da norbaitek irabaztea, guztiek irabaztea baizik. Bertan ez da trukaneurriaren balioa, dirua lehenesten. ALBA ituna garatzen ari da, praktikan egiaztatzen ari da ongintzako etxea ez dela, utopien etxea ez dela. Egiaztatzen ari da merkataritza beste era batera garatu daitekeela, garapena beste era batera eraman daitekeela eta ez kapitalak orain arte egin duen bezala. Horri esker, konturatu egin ahal izan dira hegoaldeko herriek euren kabuz pentsatu dezaketela eta bidezko garapena lortu dezaketela, ingurumenari kalterik egin gabe, gainera. Hori dela eta, ALBAk etengabeko erasoak jasotzen ditu, eta, nolabait esateko, horrexegatik gertatu zen Hondurasko estatu-kolpea. Zenbait arrazoi badaude ere, euren artean nabarmendu egin nahi dugu Honduras ALBAn sartu zela eta erkidegoak protagonismoa lortzen hasi zirela.

Hondurasko estatu-kolpearen ondorioz, atzera egin dute giza eskubideen arloan?

90eko hamarkadan eta mende honetan igarotako epealdian, inperialismoak atzeraldia handia eduki du, Bush administrazioaren ondorioz, batez ere. Egia esan,





atzeratu egin zuten, justizia sozialeko herri-gobernuak garatu ziren Venezuelan, Ekuadorren, Bolivian, Brasilen... Inolako zalantzarik gabe, horren ondorioz, AEBek eragina handiagotu nahi izan zuten, are gehiago Iraken jarraituko dutela bermatuta ez dagoela eta, Afganistan galduta duten arren, bertan diru gehiago sartzen ari direla kontuan hartuta. Egoera hori AEBentzat erraza ez denez, "erasoari" ekin diote. Kolonbia Plana Aberzale Plan bihurtu dute, eta Erdialdeko Amerikako plan guztiak dinamizatu dituzte. Honduras funtsezko pieza da AEBentzat, Honduras "bidetik urruntzen" ari zelako. Kolpea inperioaren zapalkuntza-joera berri horren barruan dago kokatuta: zazpi base militar Kolonbian, bi base militar Panaman, Paraguayko baseak sendotzeko ahalegina eta Erdialdeko Amerikako mugen kontrola. Horixe da helburua. Horrexegatik da hain garrantzitsua estatu-kolpea ez pasatzea. Munduak hori horrela zela ulertu zuenez, bete-betean gaitzetsi zuen estatu-kolpea. Inperioa harri eta zur geratu zen, eta, azkenean, euren ere gaitzetsi egin behar izan zuten euren hipokresia bereizgarriaz.

### Kubako giza eskubideen ereduak zer ikasi dezakegun azalduko diguzu?

Nire ustez, Kubako 1959ko Iraultza oso garrantzitsua izan zen, munduari erakutsi ziolako egin egin zitekeela. XIX. mendearen hasieratik 1959. urtera arte, AEBek 160-170etik gora jarduketa militar egin zituzten Amerika Latinoan, eta ez zuten inork garaitu. Kubako herriak lortu egin zuen, ordea. Ez dugu babes-armarik, ez dugu horretarako baliabiderik eta ez dugu nahi, herri baketsua garelako, besterik gabe. Amerika Latinoko ezkerrek eta herriek irakasbidea dute gertaera horretan, badagoelako inperioari irabazterik. Bestetik,

askatasun sozialak, eskubide sozialak ere bete-betean garatu daitezke: doako hezkuntza, doako osasuna, bidezko preziodun etxebizitza... Hau da, berdintasunean eta justizia sozialean lortu dugun maila handi-handia da, bloke sobietarra desagertu zenean krisi ekonomiko sakona jasan bagenuen ere. Dena dela, gure akatsetatik ere ikasi dezakete. Iraultza Sandinista gertatu zenean, gogoan dut Fidel Castrok berak 26 komandanteei eskatu ziela beste era batera antolatzeke, akats berberak egin ez zitzaizkien. Kubako ere sistema sobietarreko ekonomia eta antolaera ere kopiatu zituen neurri batean, eta, oraindik ere, horren ondorioak ordaintzen ari gara. Kubako Iraultzak alde onak eta txarrak eskaintzen dizkie gizarte-mugimenduei zein XXI. mendeko kapitalismo osteari.

Bloke sozialistako herrialde askotan, mendebaldean baino askoz gehiago garatu zituzten giza eskubide sozialak, baina banan-banako askatasuna askatasun kolektiboaren mesedetan sakrifikatu zen. Sistema sozialistaren benetako ezarpenean, ezin da egon eta ez da egon behar banan-banako askatasunaren eta askatasun kolektiboaren arteko kontraesanik. Aitzitik, garapen kolektiboak banan-banako garapena suspertu eta sustatu egin behar du, eta, etikan oinarrituta, banan-banako garapenak hurkoaren eskubideen errespetua bermatuko du. Jatorrizko herriek oso-oso kontuan hartzen dute hori, ondasun bateratuen ondorioz, irabazi-asmoaren arazoa agertzen ez delako.

Nolabait esateko, Kuban ere bai, nahiz eta blokeo ankerrak arazo handiak eta banan-banako askatasunak mugatzen dituen nolabaiteko setio-egoera sortu.





**HONDURAS**

**Estatu Kolpearen aurkako**

**Fronte Nazionala**




2009ko ekainaren 28ko egunsentian, Hondurasko herria Errepublikako Konstituzioaren eraldaketari buruzko herri-galdeketa ez-loteslerako prestatzen ari zen, eta, hautestontziak barik, armak izan zituzten zain. XXI. mende bete-betean, estatu-kolpea jasan zuten esnatzean. Egoera txarragoan dauden gizarte-mailen mesedetan eraldaketa horrek euren pribilegioak arriskupean jarriko ote zituen beldur, herrialdeko oligarkia ekonomikoko sektoreek onartu egin zuten Manuel Zelaya presidentea bere kargutik legez kanpo kentzea eta, haren ordeztan, Roberto Micheletti jartzea.

Nazioartean, ia-ia inork ezer egin ez zuenez, Hondurasko herria antolatu egin zen, eta kolpeari aurre egiteko sare aktibo bezain baketsua eratu zuen, ordena konstituzionala berrezartzeko eta Giza Eskubideak errespetatzeko. Hondurastarrak harri eta zur badaudere, kolpea sendotu egin da, eta segurtasunik eza, mehatxuak zein izua dira nagusi. Hori dela eta, demokraziaren alde dauden gizon eta emakumeen eskubideak jarri dituzte kolokan.

Laster, Hondurasko herriak 6 hilabete egingo ditu “de facto” erregimen horren menpean. Gobernuak, gainera, indar armatuak eta polizia erabiltzen ditu, bere kontra daudenak inolako lotsarik gabe geldiarazteko. Zenbait komunikabide isilarazi dituztenez, adierazteko askatasunerako eskubidea urratu dute. Era berean, ez dira berme konstituzionalak errespetatzen; esate baterako, elkartzeko, batzartzeko eta manifestaldia egiteko eskubideak.

Zailtasunak zailtasun, atzerriko gobernuek ezer ez egitean eta euren salaketa-diskurtoa egitate uki-garri ez bihurtzean konplizeak direnez, Hondurasko biztanle zibilek euren borroka baketsuari eusten diote, legezketasuna berriro ezarri ahal izateko.



---

## Betty Matamoros

*Hondurasko Erresistentzia Fronteko  
Nazioarteko Arduraduna*

---

**Arlo sozial eta politikoari begira, zein zen Hondurasko egoera estatu-kolpea gertatu baino lehen?**

Hondurasen, oso gizarte desberdina gara: askok ez dugu ezer, eta gutxi batzuek, oso biztanle gutxi, larregi daukate, ordea. Hori dela eta, Hondurasko 8 milioi inguru biztanletatik, %80 txirotasunean bizi da; eta %35, txirotasun gorrian. Beraz, erabat desberdinak gara. Herrialdeak hainbat eta hainbat baliabide natural dituen arren, hondurastarrek ez ditugu inolaz ere eskuratzerik.

**Nola bizi izan zenuten estatu-kolpea?**

Arlo pertsonalean, estatu-kolpeak harri eta zur utzi ninduen, eta, nire ustez, horixe bera gertatu zitzaien Hondurasko biztanle gehieni. Prozesu demokratikoan geundela uste genuen, lau urtean behin presidentea aukeratzen genuen-eta. Gustuko izan nahiz ez izan, ondo egon ala ez egon, herriak berak erabakitzen zuen.

Estatu-kolpea gertatu zenean, ordea, guk aukeratu ez genuen beste errealitate batean sartu ginen. Bertan, hain zuzen ere, presidentek inposatu dizkigute eta noiz kendu behar ditugun ere esaten digute. Haserre bizian gaudenez, gaur egungo emaitzak sortu dira.

**Zer ondorio sortu ditu estatu-kolpeak maila politikoan?**

Estatu-kolpearen ondorioz, sekulako desoreka sortu da. Berez, biztanleek ez zuten inolako konfiantzarik alderdi politikoetan, aurreko hauteskundeetan egiaztatu zen bezala, abstentzioa oso handia izan zelako. Orain, berriro ere beste krisi batean gaudela uste dut, eta jendeak ez du politikarietan sinesten: herrialdean gainbehera dagoen maila direla uste dugu.

**Nolako premiak eta arazoak ditu Hondurasek gaur egun?**

Historiari begira, premia asko eta asko eduki ditugu. Gure oinarrizko baldintzak ez dira etengabe estalita egon, eta, orain, estatu-kolpea datorkigu. Biztanle askok merkataritza ibiltaria dute bizibide. Desoreka erabatekoa da, zirkulatzailerik ekonomikorik ez dagoelako.

**Nola eratu eta antolatu zen Estatu Kolpearen aurkako Fronte Nazionala?**

Estatu Kolpearen aurkako Fronte Nazionala era gutxi erakunde eta mugimenduen koalizioa da, eta kolpeari aurre egiteko bat egin dute.

Frontean, oinarrizko erakundeak daude; Herri Blokea, esaterako. Ni bertako kidea naiz. Bestetik, Herri Erresistentziarako Koordinakunde Nazionala ere badago. Bertan, hain inplikaturik ez dauden erakundeak elkartzen dira. Dena dela, feminista, artista edo gazte moduan

unean uneko lana egin dutela esan beharra dago.

Alderdi Liberalaren barruan ere (Zelaya presidentearen alderdian), gero eta jende gehiago dago estatu-kolpearen aurka, bai eta Sozialdemokraten Berrikuntza eta Batasunerako Alderdiko sektore bat, Batasun Demokratikorako Alderdi ezkertiarra eta Herri Mugimenduko hautagai independenteak ere.

Azken batean, ideologiari begira inolako antzekotasunik ez duen nahastea da, baina helburu bera daukagu, hau da, herrialdean ordena konstituzionala berrezartzea eta irtenbide politiko moduan batzar nazional eratzailerik lortzea.

**Nola antolatzen da hain interes politiko desberdinak dituen jende-taldea?**

Helburu bera dugunez, sendotu egin gara. Fronteak erakunde kideetako ordezkarien bidez garatzen du bere lana. Ordezkagarritasun horrek sendotu egin gaitu. Partaidetza errazteko asmoz, eskualdeko batzarrak igandeetan egiten dira. Frontea demokratizatzeke eta bizia emateko modua da: oso garrantzitsua da herriak erresistentzia honetan benetan parte hartzea. Helburua ez da herri-diligentzia batek agintea edukitzea, herriak berak erabakiak hartzea baizik. Hori oso-oso adierazgarria dela uste dut.



**Zein dira frontearen helburuak eta nola lortuko ditu?**

Lehenengo eta behin, ordena konstituzionala eta ordena instituzionala berrezartzea dugu helburu, horixe ere urratu egin zutelako. Bigarrenez, Batzar Nazional Eratzailerik sustatzen jarraitu nahi dugu, eta, hirugarrenez, ez dugu amnistiarik onartuko. Ez gaude ados San Joseko itunarekin, amnistia eskaintzen duelako. Horre-



lako ekintzak erabat gaitzesten ditugu.

### Nola ikusi duzue AEBen eta Europaren jarduketara gobernu kolpistan zehar?

Gure ustez, Europaren hertsapenak oso ahulak izan dira. Nahiz eta estatu-kolpearekin ados ez daudela adierazi, ahozko gaitzespena baino ez dute egin, praktikan gaitzespenak oso ahulak izan direla uste dugulako. Arlo ekonomikoan ez da ezer egin, eta, gure iritziz, hortik presio handiagoa egin zezaketen. Ez da halakorik gertatu, ordea.

AEBekin are nahasiagoa da oraindik: batetik, Obama presidentearen diskurtsoa; eta bestetik, bere gobernuko jendea berak aldarrikatutakoa ez beste edozer egiten. Erabat nahasita geratzen gara, diskurtsoa eta jarduketak bat ez datozela ikustean.

### Nola urratu dira Giza Eskubideak kolpean zehar?

Gure Giza Eskubideak egunero-egunero urratzen dituzte. Presidente bahu zuteneko egunetik bertatik, gure eskubideak urratzen hasi ziren. Biztanleak zaurgarriak dira erabat, ez dugulako gure herritartasuna balioesten duen Justizia Gorte Gorenik. Horrez gain, Errepublikako Fiskaltza Nagusia ere isilik dagoenez, biluzik uzten gaitu erabat.

Zer esanik ez irailaren 21ean gertatutakoa. Presidentearen erabakiz, Errepublikako Konstituzioak ematen dizkigun banan-banako berme guztiak eten zituzten 45 egunez. Herria militarren, politikarien eta polizia-  
ren gurarien menpe dago. Alde horretatik, bakardadean gaude, nazioartean gure eskubideak urratuta daudela dakiten arren, guk geuk egin behar dugu aurrera zailtasun handiz eta guk geuk jartzen ditugu hildakoak.

### Zure ustez, zergatik jarraitu duzue borrokan, hirutik gora hilean etengabe kolpisten aurrean amore eman gabe?

Herriak mezua bidali die politikariei: ez gaude amore emateko prest, gizarte desberdina, berdintasunezkoa, partaidetzakoa eratu nahi dugu benetan. Politikariak gure ordezkariak dira, baina euren eginkizuna bete dute, eta, orain, herriak berak dio "nahikoa da!". Euren jarrera aldatu beharko dute, herriak ez duelako amore emateko asmorik.

Oso duingarria da jakitea hemendik aurrera herriak ez duela onartuko bere eskubideak inolaz ere urratzea.

### Nolakoa da komunikabideen zeregina?

Honduraseko komunikabideen %90 enpresa pribatuen esku daudenez, Hondurasko oligarkia ekonomikoaren barruan daude. Herriak ez du komunikabiderik. Beraz, oligarkiak nahi duena baino ez da esaten. Komunikabideren batek euren ez beste iritziren bat ematen badu edo objektiboagoa bada, Radio Globori eta Canal 36ri gertatutakoa jazotzen zaie. Bi kanal horiek itxi egin zituzten, hain zuzen ere. Hau da, askatasunez adierazteko eskubidea urratzen da.

### Frontearen ustez, zergatik gertatu da estatu-kolpea?

Frontearen ustez, zeresan handia izan zuten gizarte



gertatutako eraldaketek. Mugimenduak presio handia egin zuen kalean. Presidenteak herriaren premien alde egin zuen, eta oligarkiarentzat arriskutsua zen jokabidea erakutsi zuen. Hala ere, presidenteak ez zuen horrela jokatu ezkertiarra edo populista zelako, horixe esan badute ere, herritarrok presioa egin genuelako baizik. Horren adierazgarri, gutxieneko soldata %60 igo zenez, oligarkia urduri jarri zen, ez duelako inork bere poltsa ukitzea nahi, ez duelako ezer partekatu nahi.

Errepublikako Konstituzio berria egiteko galdeketa ari zen prestatzen, nahiz eta helburua argi ez zegoen: aldatzea ala gaur egungoari eustea. Oligarkia merkataritza-itunak aldatuko zizkieten beldur zen, bere posizioak ekonomikoak direlako eta ez daudelako ezer galtzeko prest. Multinazionalak ere sektore horretan daude: oligarkia nazionala ez ezik, Erdialdeko Amerikako oligarkia eta enpresa multinazionalak ere bat datoz joera horrekin.


Horrela, beste era batera pentsatzeko eskubiderik ez dugula esaten digute, beste era batera bizitzerik ez dugula, gaur egungoa ez bezalako mundua edukitzerik ez dugula. Hauxe esaten digute: "hara, apur bat matxinatzen bazara, indar armatuak edukiko dituzu atzean".

### Zuon ustez, zer gertatuko da: hauteskundeak egingo dira?

Kolpistek hauteskunde-prozesura jo nahi dute. Herriak, ordea, argi eta garbi utzi du hauteskunde-prozesuan parte hartzeko asmorik ez dugula, ordena konstituzionala berrezartzen ez bada. Legez kanpoko hauteskundeak izango dira erabat. Ez dute herriaren zilegitasunik. Kalean jarraituko dugu geure eskubideak aldarrikatzen. Ageri-agerian utzi dugu mugitu egiten den herria garelako eskubideak urratzen dizkigutenean. Beraz, hemendik aurrera inork geldiaraziko ez digulakoan gaude.



# MEXIKO "Comité Cerezo"



2006ko abenduan Felipe Calderón herrialdeko presidentetzara heldu zenean gobernuak aldatu egin bazen ere, ez zen Vicente Fox aurreko presidentearen politika ekonomiko eta soziala bertan behera utzi. PRIren eta PANen babespean, Calderónek aurreko gobernuaren estrategiei eman zien jarraipena: beregokitzapen ekonomikoa, hezkuntzarako aurrekontuaren murrizketa, energiaren, uraren eta osasunaren sektoreetako pribatizazioak eta gastu militar zein polizialaren gehikuntza, enpresa transnazional handien onurarako honako erakunde hauek zehaztutako jarraibideak kontuan hartuta: Munduko Merkataritza Erakundea (MME), Nazioarteko Diru Fondoa (NDF), Munduko Bankua eta AEBetako gobernuak.

Eredu ekonomiko horren ondorioz, lehen premiako produktuak garestitu egin dira (oinarrizko otzara), eta soldatapeko langileen erosketa-ahalmenak behera egin du, besteak beste. Gobernuak eskupekoen politika ezarri du biztanle txiroentzat (Procampo, Oportunidades, CODECOA, Nuevo Amanecer, CODEM, Chiapas Solidario...). Izan ere, entretenimendurako estrategia da, sistema kolokan jarri dezakeen mugimendu soziala prebenitzeko. Hori dela eta, jendearen bizi-baldintzen txarrera egin dute erabat. Eredu ekonomikoak txirotasuna larriagotzen du ezinbestean, eta biztanleen kopurua handitzen den neurrian hedatzen da txirotasuna. Labur-labur esanda, gero eta aberatsagoak dira, baina lehen baino askoz aberatsagoak dira, lotsagarria izan arren. Carlos Slim enpresaria desberdintasun ahalkegarriaren eredu esanguratsuen da, munduko hirugarren dirutza handiena lortu duelako Mexikon, neoliberalismoko azken urteotan.

**P**or que ser defensor  
de Derechos humanos  
No es sinónimo  
de terrorista

---

## Alejandro Cerezo

*Preso Politiko ohia  
Mexikoko "Comité Cerezo"*

---

“Ez izan desagertuko ote naizen beldur, ni neu ez naizelako ahanzturaren beldur izango”.

Alejandro Cerezo

**Cerezo Lantaldea zer den eta zer egiten duzuen azalduko diguzu?**

2000. urtean, Vicente Fox Quesada presidentea presidente aukeratu zutenean, analista eta mugimendu ezkertiar askok Mexikon trantsizio demokratikoa gertatu zela uste izan zuten. Hala ere, ez zen halakorik gertatu. Botereko alderdia baino ez zen aldatu, eta lehendik zeuden gatazka sozialak baretzeko beste modu bat besterik ez zen.

Vicente Foxen epealdi horretan, 2000-2006an, hain zuzen ere, Antonio eta Hector anaiak, Pablo Alvarado Flores indigena nahuatla eta laurok atxilotu eta torturatu egin gintuzten, eta Mexikoko Goi Segurtasuneko espetxeetan sartu gintuzten 2001eko abuztuaren 13an. Horrez gain, urte bereko urriaren 19an, Digna Ochoa y Placido giza eskubideen defendatzailea hil zuten. Cerezo Lantaldea atxiloketa horien ondorioz sortu zen. Elkartasunari esker, ni 2005eko martxoan irten nintzen; Pablo Alvarado, 2006ko abuztuan; eta nire anaiak ziren Héctor eta Antonio, 2009ko otsailean.



Cerezo Lantaldea borondatezko lan solidariorako erakundea gara, eta preso politikoaren, kontzientzia-presoen eta arrazoi politikoengatik bidegabekeriak espetxeratutako presoaren Giza Eskubideak defendatzen ditugu. Hain zuzen ere, Giza Eskubideak modu zibil, autonomo, laiko eta independentean defendatu eta sustatu egiten ditugu, eta espetxeratze bidegabeari, tortura eta Mexikoko kartzelako giza eskubideen urraketabaldintzak salatzen ditugu.

Gaur egun, estatuak nahita edo nahi gabe preso po-

litikoen, kontzientzia-presoen, arrazoi politikoengatik bidegabekeriak espetxeratutako presoaren eta euren familien zein ingurukoaren (adiskideen, bikotekidearen...) giza eskubideen esparruan egindako urraketetako biktimak atenditzen ditugu, inolako bereizketarik egin gabe.

**Zer inplikazio du Calderónen "narkotrafikoaren kontrako gerrak" giza eskubideen defendatzaileentzat?**

Felipe Calderón iruzurrezko hauteskunde zalantzagarrinen bitartez iritsi zen boterera, hau da, ez du zilegitasunik. Mexikoko historian inoiz ikusi ez bezala izendatu zuten, ekitaldi militar batean, alegia.

Jende askok ez daki gure herrialdean hirurogeita hamarrek eta laurogeiko hamarkadetan talde matxinatu guztiak eta mugimendu horien jarraitzaileen aurkako zapalkuntza politikorako estrategia ezarri zela. Dena dela, jarraitzaileak ez ezik, kasuan kasuko gobernuarekin ados ez zeuden biztanle guztiak ere zapaldu zituzten, giza eskubideen urraketak salatzen zituzten guztiak, alegia.

Garai horretan, Mexikoko estatuak erakunde arteko taldeei dei egin zien (armada, gudarostea eta polizia), eurentzat aberriaren etsaiak ziren guztiak akabatzen. Horiek horrela, Segurtasun Zuzendaritza Federala (DFS) eta bertako talde bereziak sendotu zituen. Gerra zikinaren prozesuan, DFSko zenbait kideri marihuana-aren laborantza eta drogen trafikoa oso negozio handiak zirela iruditu zitzaizkien. Hori dela eta, talde matxinatuen asaldurari aurre egindakoan, zapalkuntza politikoaren arduradun batzuk narkotrafikoaren kontrolatzaile eta onuradun nagusiak izan ziren.

Garai horretan sortutako botere-sareak bere horretan dirau gaur egun. Horrez gain, gaur egun, mugimendu politikoak, sozialak, GKE eta gerrilla matxinoak areagotu dira (Mugimendu Armaturen Dokumentazio Zentroa, 2005). Horren ondorioz, estatuak berriro behar ditu desagertu ez arren laurogeiko hamarkadaren amaieratik "abian" egon ez ziren jakintza, egitura eta pertsona asko. Egitura horiek, botere-sare horiek oso garrantzitsuak dira, gaur egungo narkotrafikoaren fenomenoak ulertzeko.

Narkotrafikoak arrisku handiko inbertsiodun enpresa transnazionalen antzera jokatzen du, eta, enpresa transnazional guztiek bezala, estatuan dituen ordezkariak eta bere interesak menderatzen ditu era askotara. Horrez gain, enpresa lehiakideak desagerrarazten saiatzen da legearen arabera eta lege kanpoko baliabide guztiak bitartez. Beraz, bete-betean garatzen ari den negozioa da, eta drogak zein euren ziklo osoa ez ezik (ekoizpena, banaketa, trukea eta kontsumoa), armen trafikoa (armagintzako transnazional handien onurarako) eta gizaki-esklaboaren trafikoa (merkantzia onena da, balioa sortzen duen bakarra delako) ere kontrolatzen dituzte. Ez dago delinkuentzia antolatuen eta estatuaren arteko independentziarik, baina biak gauza bera dira, ordea.

**Delinkuentziaren eta mugimendu sozialen arteko mugak desagertzen ari dira?**

2004ko maiatzaren 28an eta 29an, Jalisco Gualajarako hirian, Amerika Latino, Karibe eta Europar Batasuneko estatuburuaren III. goi-bileran, altermundis-



ten manifestaldiaren aurkako lehen zapalkuntza politiko jendetsua gertatu zen, 110 mexikar eta 8 atzerritar atxilotu zituztelako.

Estrategia horren ondorioz, gizartea ikaragarri polarizatu denez, ez dago neutraltasunerako lekurik, hau da, edo legeen eraldaketak babesten dituzu (konstituzionalak, penalak, segurtasun nazionalekoak), talde polizialak sortzen dituzu, armadaren funtzio zibilak onartzen dituzu eta estatuaren aliatua zara; edo estatuaren kontra zaude eta, horren ondorioz, menderatu, neutralizatu edo akabatu beharreko etsaia zara. Narkotrafikoaren aurkako gerrari buruzko diskurtsupean, matxinoen aurkako gerra dago benetan.

Hori dela eta, estatuak inposatu egiten du, segurtasunik eza murrizteko, gizartearen Giza Eskubideak mugatzeko eta urratzeko eta salbuespen-araubidea ezartzen du. Esate baterako, Delinkuentzia Antolatuen aurkako Legea ezartzen du, eta giza eskubideen defendatzaileek eta edonork lege horri men egin behar diote. Zapalkuntza politikorako tresna denez, gizarte-sarea suntsitzen du, hau da, atxilotuen, sustraituen edo presoen hondamendi fisiko eta intelektualak sortzen da, eta senideek zein euren ingurukoek kalte fisiko, emozional eta ekonomiko larriak jasaten dituzte.

**Nolako loturak daude AEBen eta enpresa transnazional handien onurarako megaproiektuen ezarpenaren eta zapalkuntza politikoaren artean?**

2006ko maiatzaren 3an eta 4an, Mexikoko estatuko San Salvador Atencoko herrian, nekazarien aurkako zapalkuntza handia garatu zen, megaproiektu bat geldiaraztea lortu zutelako. Horren arabera, laborantzarako lurak kendu nahi zizkieten, aireportua eraikitzeko. 200etik gora lagun atxilotu zituzten, 2 lagun hil zituzten, gutxienez 26 emakume bortxatu zituzten, atxiloteta arbitrarioak egin zituzten, legez kanpoko atxikipenak garatu zituzten, tratu anker bezain laidogarriak eta torturak gertatu ziren, jendea Goi Segurtasuneko espesketan sartu zuten eta 50etik gora urte-

rako kartzela-zigorak ezarri zituzten.

Estatuaren esanetan, estrategia hori narkotrafikoaren aurkako gerra da, baina zer ondorio sortu ditu gerrak?, nor da estatuaren etsaia?, nor dira "gerra" honetako benetako aurkariak?, zer emaitza lortu dira?, nolako inplikazioak ditu giza eskubideen defendatzaileentzat eta gizarte osoarentzat?

Gure ustez, mexikar guztiak kontrolpean edukitzea da estrategia horren helburu orokorra. Horrela, estatuko botere-taldeen eta enpresa transnazionalen interesen araberrako politikak jarri ahal izango dituzte abian.

**Zer zeregin du Mexikok AEBek eskualdeko herrialde ezkertiarren aurrean Amerika Latinoan duten kontrolari dagokionez?**

Ondorioak ondorio, Mexiko Planak edo Merida Ekinmenak bizitza zibilaren militarizazioa sendotuko du. Gainera, oso gogoan hartu behar dugu gaur egun Mexikok zeregin estrategikoa duela Amerika Latinoan, AEBen babespean Kolonbiarekin batera osatzen duela ezkertiarren diren edo ideologia horretatik hurbil dauden gainerako herrialdeen aurkako blokea.

Hona hemen Mexikok AEBentzat duen garrantziaren adierazgarri diren zenbait datu: 1997tik 2001era, 103 milioi dolarreko "laguntza militarra" jaso zuen; eta Kolonbiak, 277 milioi dolar. 2000tik 2006ra, Kolonbiak 6 milioi dolar jaso zituen, eta Uriberen gobernuak 25.000 milioi dolar inbertitu zituen. Kolonbia Planak dirauen zapi urteetan, AEBetako gobernuak 6 mila milioi dolar inguru inbertitu ditu drogen aurkako gerrarako, nonbait. Diru-kopuru horren %76 Kolonbiako armadaren eskuetara joan zen. Mexikori 800-1.000 milioi dolar emango omen dizkiote, eta, eurretatik, 400 milioi 2008-2009ko zerga-ekitaldian agertuko dira.

Kolonbia Planaren emaitzei dagokienez, planaren hasieran kokaz landutako 140.000 hektarea bazeuden ere, 10 urteren ondoren 139.000 daudela esan dezakegu. Drogen aurkako borrokarako plan egokiak ote dira? Ez, erregimena betiketzea baino ez dute helburu.

Amaitzeko, 80 milioi mexikar txirotasunean bizi direla esan behar dugu. Agerikoa denez, estatuaren irtenbidea ez da izango biztanleen giza eskubideen erabateko erabilera askea eskaintzeko eta gauzatzeko betebeharra betetzea, guztiz kontrakoa baizik: bere politikak, hain zuzen ere, efektibo militarrek gehitzea eta munduan kriminetzat dutena legezko bihurtzea baino ez du helburu.

**Nolako zeresana dute komunikabideek izuaren erregimen horren ezarpenaren?**

Estatuak zenbait ekintza erabili ditu, narkotrafikoaren aurkako gerra abian jartzeko, eta, horiek ulertzeko, oso kontuan hartu behar da estatuak zilegitasuna bilatzen duela eta behar duela, hau da, bere ekintzen aldeko iritzi publikoa erdietsi behar du.

Aspaldidanik, komunikabide guztietako diskurtsuon igorritako mezuek eguneroko gintza kriminalak handiagotzen dituzte, pertsonen etengabe segurtasunik eza areagotzen dute eta, arazoa konpontzeko, efektibo polizialak zein armadaren agerpena ugaritu egin behar direla diote.



# ARGENTINA HIJOS



1976ko estatu-kolpetik 1983ra arte Argentina gobernatu zuen diktadura militarrean, Amerika Latinoko beste herrialde batzuetako diktadura militarretan bezala, ezohiko zapalkuntza ikaragarria izan zen nagusi. Segurtasun nazionalaren doktrinako dogmen aitzakiapean, milaka lagun torturatu, hil eta desagerrarazi egin zituzten. 1977an, militarrek boterera iritsi zirenetik urtebete bakarrik igaro ondoren, 6.000 exekuzio garatu ziren eta 15.000 preso politiko zeuden, gutxi gorabehera. “Gerra zikina” hasi zen, urte itzaltso horietan Amerika Latinoan garatutako gerra odoltsuenetakoa, alegia.

Diktadurak herrialdeko oposizio politikoaren aurkako zapalkuntza-sistema osoa egituratu zuen. Ezkerraren aurkako benetako barne-gerra ankerra sortu zen, gerra hotzeko urteetan komunismoaren inguruan ezarritako izuaren eraginpean. Gerra politiko horren eta egiturak egokitzeko politika ekonomiko liberal oldarkorren ondorioz, garapen ekonomikoa lortu beharra zegoen, kriminalen ustez. Helburu hori lortu beharrean, diktadura militarren urteetan kostu sozial itzelak eduki zituen krisi ekonomikoa izan zen nagusi.

1983. urtean, trantsizio demokratikorako bidea urratu zen, gainbehera ekonomikoak eta Malvine-tako gerrako porrotak itotako diktaduran. Dena dela, artean ere sektore militarrek herrialdeko politikan zeresan handia zeukanez, gerra zikineko izugarrikeriei aurre egiteko justizia-saialdi guztiak ezeztatu zituzten. Prozesu horren ondorioz, “amaiera” legeak sortu ziren, zibilen eta militarren arteko adiskidantza lortu nahian. Nolanahi ere, amnistian oinarrituta adiskidantza zen, eta ahanzturaren zein isiltasunaren bidez itxi nahi zituen gerrako zauriak, hau da, kriminalek euren krimenengatik ezer ordaindu gabe. Harrezkero, desagertutakoen familiek eta giza eskubideen defentsarako erakundeek zigorgabetasunaren aurka eta oroimenaren zein egiaren alde lan egiten dute bete-betean, justizia egin dadin.

---

## Eduardo Nachman

*Nortasunaren eta Justiziaren aldeko eta Ahanzturaren eta Isiltasunaren aurkako Seme-alabak (H.I.J.O.S.) Argentina*

---

Nola sortu zen HIJOS eta zein dira zuon eskari nagusiak?

Eduardo Luis Nachman dut izena, eta, hasiera-hasieratik, H.I.J.O.S. elkarteko kidea naiz Argentinako Buenos Aireseko hiriko eskualde-bulegoan. H.I.J.O.S. elkarte 1995eko apirilean sortu zen, estatuak diktadura militarrean zehar eta diktadura aurreko urteetan garatutako terrorismoko biktimen seme-alaba askoren begira bateratupean: desagertuak, eraildakoak, erbesteratutakoak, preso politikoak... Elkarte horizontala gara, hierarkiarik gabekoa, eta zenbait batzordetan lan egiten dugu.



H.I.J.O.S. sigla da eta honako hauxe da bere esanahia: "Nortasunaren eta Justiziaren aldeko eta Ahanzturaren eta Isiltasunaren aurkako Seme-alabak". Funtsean, antzeko eskariak ditugu, eta zigorgabetasunaren aurkako borrokarekin dute zerikusia. Genozidak eta euren konplizeak epaitzeko eta zigortzeko bandera jasotzen dugu beti. Gaur egun, kontsigna ez ezik, egin gabe dagoen zeregina ere bada, sustatzen ari garen zeregin gogorra, alegia. Une honetan, zenbait epaiketa egiten ari dira, eta beste asko hastear daude. Oraindik, ordea, gutxi dira, Argentinan zenbat genozida egon ziren kontuan

hartuta. Nolanahi ere, aurrera goaz.

Bestetik, jabetutako edo gatibualdian jaiotako nebarreben nortasuna berreskuratu nahi dugu. Maiatzaren Plazako Amamekin lan egiten dugu, eta eurengandik ikasten dugu. Gizarte-sarea berreratzean, desagertutakoak, eraildakoak, preso politiko ohien eta erbesteratuen seme-alabak ez ezik, gaur egun printzipio berberak ditugun kideak ere elkartzen gara H.I.J.O.S. erakundean, azken batean guztiok historia bereko seme-alabak gara-eta.

**Konpondu gabeko zenbat kasu daude Argentinan?**

Hainbat eta hainbat kasu daude konpondu gabe. 280 zapaltzaile baino ez dituzte epaitu. Orain dela 20 urte egindako txostenen arabera, 1.600 militar zeuden errepresioan inplikaturik, zibilak zenbatu gabe. 500etik gora atxilotaketa-zentro ezkutu egon zirela eta zentro bakoitzean hamarnaka zapaltzaile egon zirela kontuan hartuta... Hala ere, 280 baino ez dituzte epaitu. Oso gutxi da.

**Azalduko diguzu nolakoa den batzordeka garatzen duzuen lana?**

Batzorde asko daude: ikerketa-batzordeak, irriti eta zabalkunde batzordea, komunikazio-batzordea, nebarreben batzordea, finantza-batzordea... Batzorde desberdinak dira, eta, interesaren arabera, borondatez bat egiten duzu euretako batekin. Batzorde horien bidez, geure zeregina garatzen dugu. Une honetan, epaiketa eta zigor batzordeen lana da funtsezkoa.

**Adiskidantza ezarri daiteke Argentinan?**

H.I.J.O.S. elkartetik behin eta berriro diogu ahaztuko ez dugula, barkatuko ez dugula, adiskidetuko ez garela. Inolaz ere ez. Ez dago barkamenik. Ez dago aukera hori, barkatuz gero, zigorgabe geratuko direlako eta edonolako zigorgabetasunaren aurka gaudelako. Ez dugu onartzen genozida bat kalean askatasun osoz ibiltzea, ez delako bidezkoa. Genozida guztientzat, betiko kartzela, bateratua bezain eragingorra.

**Zigorgabetasunaz ari garela, nolako atzeraldia sortzen dute zigorgabetasunari buruzko legeek giza eskubideen arloan?**

H.I.J.O.S. elkartearen oinarritzko puntuetako batek zigorgabetasunari buruzko legeen ezeztapenarekin dauka zerikusia eta lortu egin dugu<sup>1</sup>. Orain dela zenbait urte, horrelako lege gehiago ez egotea erdietsi dugu. Astiro-astiro, gure presio eta borrokaren bitartez, genozidak espexeratzen ari gara.

Dena dela, mekanismo judiziala hain geldoa denez, zigorgabetasuna areagotzen du: genozida eta kereilajartzaile asko oso zaharrak direnez, hiltzen ari dira, eta, horren ondorioz, genozidioaren erantzuleak aske geratzen dira.

---

<sup>1</sup> En 2003 comenzó el proceso de anulación de las leyes argentinas de Obediencia Debida y de Punto Final. Estas leyes habían sido promulgadas en 1986 y 1987, e impedían que los tribunales argentinos sancionasen a los responsables de los crímenes de estado perpetuados por la dictadura militar argentina entre 1976 y 1983.

---





### Badirudi oztopo asko aurkitzen dituzuela bidean.

Oztopo asko: teknikoak, materialak... Esate baterako, genoziden abokatuak profesionalak dira; eta gureak, militanteak, hau da, ez dute soldatarik jasotzen. Horrez gain, borondatezko laguntza ere ematen dugu, nahiz eta inork esperientzia judizialik eduki ez.

Zer esanik ez, auzitegi bakoitzak jarritako oztopo politikoak ere badaude. Den-dena oso zatituta dagoenez, ez dago mega epaiketarik egiterik. Zatiketaren ondorioz, auzitegi bakoitzaren interpretazioa onartu behar dugu: batzuen ustez, genozidioa izan zen, baina beste batzuen iritziz, ez. Epaite batzuetan, publikoa dela esan arren, ez dute telebistan ematen. Auzitegi askotan, debekatuta dago epaiketak telebistan ematea, irudiak ematea, argazkiak ateratzea... Hori dela eta, ezin da esan hain publikoa denik. Auzitegi bakoitzaren esku egotea da arazoa, eta hori egiten duten asko daude.

### Gizarte zibilak badaki zer gertatzen den epaiketetan?

Militantziak izan ezik, informazioak ez dio garrantzi lar ematen.

### Nolako ekintza-estrategiak dituzue horri aurre egiteko?

Gure komunikazio-estrategia arina bezain zentzuzkoa da. "La lucha que nos parió" irrati-saioa dugu. "Fm La Triburen" bidez ematen da irrastian, eta Interneten ere badago entzungai ([www.fmlatribu.com](http://www.fmlatribu.com)). Zenbait batzordetan lan egiten ari gara, komunikabide hori hedatu ahal izateko.

### Nolako itunak dituzue beste erakunde eta mugimendu sozial batzuekin?

Erakunde askorekin lan egiten dugu hurbil-hurbiletik, baina geure independentziari eusten diogu. Ahal dugula, eskutik helduta egiten dugu aurrera, baina batez ere, giza eskubideen aldeko erakundeekin. Gaur egungo itun askok lege-arloko gaiekin dute zerikusia, baina oro har, Maiatzaren Plazako Amekin (linea sortzailea), Maiatzaren Plazako Amamekin eta "Arrazoi Politikoen-

gatik Desagertutako eta Atxilotutako Senideak" elkartarekin. Izan ere, lokal berean gaude guztiok.

### Badago antzekotasunik 60ko, 70eko eta 80ko hamarkadetako "segurtasun nazionalerako doktrinaren" eta "terrorismoaren aurkako gaur egungo gerraren" artean?

Jakina. Zapalkuntza-sistema berbera da, eta zigorgabetasunak horretarako aukera ematen du. Zigorgabetasunak estatu-terrorismoa edo, Argentinan esaten den bezala, "gako erraza" sustatzen du. Tamalez, terrorismo-jardunak gero eta ugariagoak dira herrialde askotan.

### Ekainean Hondurasen gertatutako estatu-kolpearen ondorioz, badirudi iraganera itzuli garela, oso triste izan arren. Historia errepikatuko egingo ote da?

Nola aurre egiten diogun eta erresistentzia horiek nolakoak diren hartu beharko da kontuan. H.I.J.O.S. elkartean, Maiatzaren Plazako Amengandik ikasi genuen galtzen den gerra bertan behera utzitakoa dela. Gure ustez, denbora apur bat gehiago behar da ezinezkoa dena lortzeko. Jakin badakigu borroka hau eguneroko borroka dela, eta "noiz arte?" galdetzen ditugunean, "garaipenera arte, beti" erantzuten dugu inolako zalantzarik gabe.



I  
G  
L  
E  
S  
I  
A  
N  
A

# ¡NUNCA MÁS!

4.000 MUJERES UNIDAS POR VERDAD, LA JUSTICIA, LA REPARACIÓN INTEGRAL Y LA RECONCILIACIÓN  
CARRERA SÉPTIMA ENTRE LA PLAZA DE BOLIVAR Y EL PARQUE DE LA 93  
10 de Diciembre: 10:00 a.m. a 4:00 p.m.

4.000 MUJERES UNIDAS POR VERDAD, LA JUSTICIA, LA REPARACIÓN INTEGRAL Y LA RECONCILIACIÓN  
CARRERA SÉPTIMA ENTRE LA PLAZA DE BOLIVAR Y EL PARQUE DE LA 93  
10 de Diciembre: 10:00 a.m. a 4:00 p.m.

# NO MÁS EN COLOMBIA

Comunicación de víctimas  
UNIÓN PAZ

# ¡NUNCA MÁS!

4.000 MUJERES UNIDAS POR VERDAD, LA JUSTICIA, LA REPARACIÓN INTEGRAL Y LA RECONCILIACIÓN  
CARRERA SÉPTIMA ENTRE LA PLAZA DE BOLIVAR Y EL PARQUE DE LA 93  
10 de Diciembre: 10:00 a.m. a 4:00 p.m.

4.000 MUJERES UNIDAS POR VERDAD, LA JUSTICIA, LA REPARACIÓN INTEGRAL Y LA RECONCILIACIÓN  
CARRERA SÉPTIMA ENTRE LA PLAZA DE BOLIVAR Y EL PARQUE DE LA 93  
10 de Diciembre: 10:00 a.m. a 4:00 p.m.

# NO MÁS EN COLOMBIA

Comunicación de víctimas  
UNIÓN PAZ

# ¡NUNCA MÁS!

4.000 MUJERES UNIDAS POR VERDAD, LA JUSTICIA, LA REPARACIÓN INTEGRAL Y LA RECONCILIACIÓN  
CARRERA SÉPTIMA ENTRE LA PLAZA DE BOLIVAR Y EL PARQUE DE LA 93  
10 de Diciembre: 10:00 a.m. a 4:00 p.m.

4.000 MUJERES UNIDAS POR VERDAD, LA JUSTICIA, LA REPARACIÓN INTEGRAL Y LA RECONCILIACIÓN  
CARRERA SÉPTIMA ENTRE LA PLAZA DE BOLIVAR Y EL PARQUE DE LA 93  
10 de Diciembre: 10:00 a.m. a 4:00 p.m.

# NO MÁS EN COLOMBIA

Comunicación de víctimas  
UNIÓN PAZ

COLOMBIA



Gaur egun, indarkeriaren zurrumbiloen murgildutako estatua da Kolonbia. Indarkeria horrek arlo guztietan du eragina, eta mehatxuak, bahiketak zein estortsioak ditu adierazpide. Kolonbiako herriak gerra ezkutua bizi du, eta, bertan, estatua, paramilitarismoa, narkotrafikoa eta gerrilla dira funtsezko eragileak. Gerra horretan, gainera, milaka desagertu eta hildako daude. AEBek babestutako Uribe presidentek ordena eta segurtasuna berrezartzeko tresna moduan aurkezten du segurtasun demokratikorako politika. Bakea suspertu beharrean, bere estrategia politikoak larderiako erregimena sendotzen du, eta kolonbiar gehienen giza eskubideen errespetua eta gozamina gutxiesten ditu.

Terrorismoaren eta narkotrafikoaren aurkako borrokaren aitzakiarean, gobernuaren edozein jarduketa justifikatzen da. Edonola ere, fatxada horren atzean, oligarkiaren interesak baino ez daude. Hain zuzen ere, estrategia politiko horren helburuak dira. Sektore boteretsuek disidentziaren aurkako estrategia osoa egituratu dute. Disidente guztiak terroristatzat, gerrillako jarraitzailetzat, etsaitzat hartzen dituzte. Segurtasun-politikak herrialdeko elite ekonomikoen interesen arabera proiektu politiko eta ekonomikoa ezartzea du helburu, enpresa transnazional handiekin bat egiteko asmoz. Proiektu hori bultzatzeko, gainera, gizartearen militarizazioa sustatzen da, gastu militarra handiagotu egiten da eta pertsona zibilak inplikatzeko segurtasun-sistema estatal edo militarrean. Historiari begira baztertuta bizi izan diren sektoreak dira ondorio horiek jasaten dituztenak: nekazariak, indigenak, ikasle ekintzaileak, sindikalistak eta gizarte zein herri mugimenduetako liderrak.

Kapital transnazionalak Uriberen politika babesten duenez, baliabide ugari bezalako lurralde kolonbiarrean sartzen uzten dio. Bertako lurretako aberastasun hori herrialdearentzako opari pozoitua omen da, gatazkaren iturri nagusia delako. Izan ere, nekazari txikiak nekazaritza-negozioko mundu boteretsuaren aurka borrokatu behar dira, herrialdeko aberastasun naturala eta aniztasuna arpilatu nahi dutelako. Lurraldea kontrolatzeko borrokaren ondorioz, erki-degoak nahitaz lekualdatu behar dira: 4 milioitik gora lagun. Lekualdaketa gutxi izango balira bezala, Giza Eskubideak ere behin eta berriro urratzen dituzte: oposizioaren atxiloketa arbitrarioak, erailketak eta judiziorik kanpoko prozesuak eta exekuzioak.

Testuinguru horretan, Kolonbiako erakunde eta gizarte-mugimendu askok zapalkuntzari aurre egin behar diote, eta euren eskubideen errespetuaren alde borrokatu behar dira. Zigorgabetasunaren eta isiltasunaren aurka, biktimen elkarteek (MOVICE), nekazarien erakundeek (FENSUAGRO) eta erakunde indigenek (CRIC eta ACIESNA) beste era bateko Kolonbiaren aldeko ahotsa entzunarazten dute.

## Marcela Duarte

*Kolonbiako Estatu Krimenetako  
Biktimen Mugimenduko kidea*

MOVICE zer den, nola sortu zen eta zer helburu eta lan-estrategia dituen azaltzea nahi genuke.

Marcela Duarti dut izena, eta 2002. urteaz geroztik lan egiten dut MOVICerekin (Kolonbiako Estatu Krimenetako Biktimen Mugimendua). Funtsean, "Kolonbia berriro ez" proiektuan lan egiten dut. Modu ofizialean, mugimendua ez zen 2005. urtera arte jendaurrean agertu. Hala ere, askoz lehenago hasi zen oroimenaren berreskurapenaren arloan lan egiten. Gaur egun, inorentzat ez da sekretua Kolonbian genozidio politikoa egon dela, nahiz eta nazioartean onartu ez. Izan ere, genozidio politikoa nazioarteko jurisdikzioaren ere ez da agertzen delitu moduan, genozidio etnikoa eta genozidio erlijiosoa, kulturala baino ez direlako onartzen. Politikoa ez, ordea. Dena dela, Kolonbian giza-diaren aurka garatutako krimena genozidio politikoa izan da. Gure nazioan gertatutako heriotza ugariak ez dira barruko gerra zibilaren ondorioak izan, herrial-

deko oposizio politikoaren sarraskiaren ondorioz baizik. Bertan, hain zuzen ere, sindikalistak, ikasle liderak, oposizioako alderdietako militanteak... sarraskitu dituzte. Nazioko eta nazioarteko erakunde askok eta askok heriotza ugari-ugari horiek onartu dituzte. Izan ere, alderdi osoak sarraskitu dituzte, bertako militante guztiak erail dituztelako. Orain, beraz, helburua ez da hainbeste krimenak egiten ari direla salatzea, gaur egun ere egin egiten direlako, gatazkaren osteko premiak nabarmentzea baizik. Indarkeriaren zurrunbiloak bere horretan dirau, eta estatuaren indarkeria da, horrek dituen inplikazio guztiak kontuan hartuta. Honako hauexek osatzen dute estatua: aberatsak, lurjabeak eta enpresen jabeak (azkenean, enpresak ere politikariak dira). Pertsona horiek, gainera, parlamentuan nahiz gobernazioetan daude, eta,aldi berean, narkotrafiko-sarea ere badute. Botere ekonomiko eta militar hori daukate, euren aurka dauden talde guztiak akabatzeke. Hori guztiori 60ko hamarkadan sortu zen gerra hotzaren garaian, helburua nagusia komunismoari aurre egitea zenean. Genozidio politikoa hau garai hartako herentzia da, beraz. Harrezkero, zenbait epealdi eta aldaketa gertatu dira zapalkuntza-ereduetan: batzuetan, judizializazioa eta kartzela erabiltzen dira gehien; eta beste batzuetan, hilketa selektiboa eta sarraskia. Une honetan, "zapalkuntza instituzionalizatuaren" epealdian gaude, eta, bertan, estatua bera da zapaltzailea legezkoak diren oso lege zorrotzen bitartez: orain ez da legez kanpokoa norbait atxilotzea eta espetxeratzea harrapaketa-agindua eduki baino lehen. Zapalkuntza legalizatu egin da, beraz.

Testuinguru horretan, Biktimen Mugimendua sortu zen. 1994. urtean, gerrillarekin bake-elkarrizketak garatzeko aukera sortu zen. Gatazka amaitu egingo zela uste izan genuen. Horri esker, estatuko eragile askok egindako hainbat krimen zigorgabe eta ahaztuta gertatu ziren. Orduan, egiaren batzordea eratzeko ekimena sortu zen. Estatuak egindako krimenak dokumentatzen hasi ginen, horri buruz inork ezer esaten ez zuelako. Kolonbian, gerrillak egindako krimenei buruz baino ez dute hitz egiten. Orain dela gutxira arte, 2008. urtera arte, talde paramilitarrak zeudela ere ez zuten aipatzen, paramilitarismoa 80ko hamarkadan ezarri bazen ere. Oroimena berreskuratu beharra dagoenez, biktimekin lan egiten hasi ginen, lekukotasunak biltzeko eta giza eskubideen erakunde defendatzaileen artxiboak antolatzeke. 1998an, estatuak proiektuaren egoitza bortxatu zuen, eta bildutako datu guztiak eraman zituzten. Gainera, gerrillarekin lotuneak zituela egotzi zioten proiektuari. Nolanahi ere, lanean jarraitu genuen, eta, 2000. urtean, lehenengo "Berriro ez" txostenak argitaratzen hasi ziren, jendeari estatuak Kolonbian egindako krimenak larriak eta ugariak zirela jakinarazi nahian. Kasu bat, bi edo hiru ez zirela eta hainbat eta hainbat kasu zeudela egiaztatzea zen helburua, bai eta nahitaezko desagerpenak, torturak eta erailketa selektiboak zeudela ere, nahiz eta estatuak hori guztiori ukatu. Zigor Kodean, nahitaezko desagerpenaren delitua ere ez zen agertzen. Desagertuen senideak ezin zuten inolako



salaketarik aurkeztu, deliturik ez zegoelako. Agintariak esaten zieten, gorpurik gabe, ez zegoen deliturik, ez zegoen ezer. Borroketakoa izan zen. Hain zuzen ere, 2002. urtera arte ez zuten nahitaezko desagerpena delitutzat hartu Kolonbian. Borroka itzela izan da benetan.

Horrez gain, lekukotasunak biltzera joaten ginenean, jendea bakar-bakarrik zegoela ikusten genuen. Bestetik, berbiktimizazio-mailak ere handiak ziren, berriro ere eraso egiten zitelako, isilik egon zitezen eta salatu ez zezaten. Itxaropenik eza ikaragarria zen benetan. Biktimek babesik ez dutenean, erantzunik aurkitzen ez dutenean, krimenak zergatik gertatzen diren ere ulertzen ez dutenean, euren buruari botatzen diote errua. Euren errua dela uste dute, semeari edo alabari sindikatuan sartzen utzi ziotelako. Era berean, sindikalista izatea txarto dagoela uste dute... Itxaropenik eza hain handia denez, onena ezer egitea ez dela uste dute, horrela ez zaielako ezer gertatuko. Horrelako logika da nagusi: onena ez antolatzea dela, ezer ez egitea. Horrela, ez zaie ezer gertatuko. MOVICEk ahal duen guztia egiten du, biktimek bakarrik ez daudela sentitu dezaten, beste biktima batzuk ere badaudela jakin dezaten, borrokarako itxaropena berreskuratzen hasi daitezten, euren sare sozialak berriro eratu ditzaten eta euren senideen nahiz kideen ametsak balio handikoak zirela pentsatu dezaten. Hona hemen leloa: gogoratu dezagun, ez erre-pikatzeko. Honako hauxe da oroimenaren leloa: oroitu dezagun, gure kide, neba-arreba eta senideen ametsak eta borroka berreskuratzeko. Genozidio politikoa denez, oroimenaren berreskurapena ere desberdina da. Helburu bakarra ez da oroimena berreskuratzea, gorpua non dagoen eta nork eta nola hil zuen jakiteko, pertsona horrek zer proiektu politiko defendatzen zuen eta horren alde zergatik hil zuten jakitea baizik.

2000. urteaz geroztik, eskualde-kapituluak eratzen ditugu herrialde osoan, eta mugimendua sendotzen ari da. 2004an, jendaurrean aurkeztu ginen, gobernuak talde paramilitarrek adiskidetzeko eta bakea sinatzeko esparru juridikoa ezarri zuenean. MOVICEren ustez, gobernuaren estrategia hori zigorgabetasunaren erabateko zigilua da, errudun bat bakarrik kondenatzen duelako; esate baterako, eskualde horretan ziharduen edozein paramilitar. Hala ere, paramilitar horren atzean finantziario-emaileak, arma-emaileak eta garatutako krimen onuradun politiko eta ekonomikoak zeuden. MOVICEren iritziz, egia egia integrala izan behar da. Gure helburua ez da epaiketak egitea, goitik behera manipulatzeko ditzutelako. Gure helburua ez da biktimaren hiltzaileak gizabanako moduan zer egin zuen aitortzea, sindikatu osoa sarraskitzeko agindua nork eman zuen, sindikatuaren desagerpenaren onuraduna nor izan zen... jakitea baizik. Tiro egiten duen pertsonaren atzean, askoz interes gehiago daude. Indarkeria botere-mekanismo moduan, botere-gerrarako tresna moduan erabiltzen da, eta, bertan, eredu soziala inposatzen da. Helburu bakarra ez da hiltzailea nor izan zen jakitea, heriotza horren bidez zer eredu ekonomiko inposatu zen zehaztea baizik.

Egia "juridikoaz" gain, egia "moral" ere badago. Egia horren helburua ez da biktimek oinaze handiagoa sentitzea, desagerpenak eta torturak berriro gogoratzea oso gogorra delako, errua berea eta hildakoarena izan ez zela ulertzea baizik, errua mekanismo horiek ezarri zituen sistemarena izan zela ulertzea baizik. Informazioa babesteko estrategiak ditugu, gatazka-testuinguru

honetan oraindik ateratzerik ez dagoelako, jende asko mehatxatzen dute-eta. Biktimek Mugimenduan, jende asko dugu mehatxupear. Senideen aurkako atentatuak egiten dituzte, prozesu judizialean daudenean. Hil egiten dituzte, epaiketetan lekukotasunik eman ez dezaten. Esate baterako, herrialdekanpo dagoen Batzorde Etikoa dago, mundu zabaleko jendeak osatzen du eta Kolonbiara joaten da lantzean behin. Batzordeak lekukotasunak atera eta beste herrialdeetara eramaten ditu, Kolonbian arriskupear dauden gauzak babesteko. Bestetik, batzordeak mundu osoari azaltzen dio zer gertatzen den Kolonbian, bake-bertsio ofizialekan haratago.

MOVICEn, genozidio politikoa eragindako hondamendia neurtzen saiatzen gara, indarkeriaren ondorioz zer galdu zen jakiteko, lur horietan zeuden nekazariak alde egitean oligarkiak zenbat lur-hektarea berreskuratu zituen zehazteko. Benetan zer galdu zen jakin nahi dugu, lurak ez ezik, bizimoduak, ustiapen-modu naturalak eta bertako forma kulturalak ere galdu zirelako. Oso zaila da hondamendiaren dimentsioa neurtzea. Era berean, hondamendiaren aurkako erresistentzia-mekanismoak eta nekazariak lur horiek berreskuratzeko eta itzultzeko estrategiak ere sustatzen ditugu landa-inguruneetan dagoen jendearekin batera.

Horrez gain, nazioartean genozidio politikoa estatu-krimetzat hartzea ere nahi dugu eta krimen horren erantzuleak zigortzeko abagunea izatea.



Mugimenduaren apustuak ez dira batere bortitzak. Geure ekarpenak egin nahi dugu adiskidantzan, sendabidean eta doluen tramitean, mundu guztiak egia jakin dezaten. Hori horrela izanik ere, estatuaren erantzuna oso-oso bortitza izan da. Hona hemen horri guztiorri erantzuteko ditugun baliabideak: sormena, dantza, oroimenaren galeriak eta plaza publikoetan egindako antzezpenak. Senideak galdu dituzten oinazetik haratago, mundu desberdinaren alde zegoen belaunaldi osoa erailteagatik herrialdeak galdutako guztiaren inguruan sentsibilizatzea da gure asmoa.

Kolonbiako gobernuak inposatu nahi duen eredu ekonomiko neoliberalaren eta oposizioa maila guztietan jasaten ari den zapalkuntzaren arteko lotuneak salatzen ditu MOVICEk?

Oraindik ere, maila zehatzeko estrategiak dira. MOVICEn, era guztietako erakundeak daude elkartuta, borroka sozialean dauden talde guztiak, alegia: ikasleak, sindikalistak, militanteak, nekazari indigenak... Egia- ren, justiziaren eta erabateko sendabidearen inguruko aldarrikapenak bateratuak dira. Egia eskatzean, herrialdea lapurtzen ari diren politikari gehienak espetxeratzeko eskatzen da. Egia eskatzean, herrialde desberdinen ametsetan berriro prentsatzeko eskatzen da. Gero eta agerikoagoa da jende asko eta asko hil dutela, euren lurrak multinazionalen defendatzeagatik eta lurraren berezko ustiapen-moduak defendatzeagatik, erkidego nekazarien erreserba-guneetan gertatu den bezala. Horren ondorioz, lurra ez da kapitalismoaren produktua, erkidegoaren, erkidegoarentzako produktua baizik. Eredu neoliberalari aurka egitean, liderrak sarraskitzen dituzte.



Eraso zituzten mugimendu sozial eta kulturalen borroka-plataforma horiek berreskuratzen hasi nahi dugu. Azaldu egin nahi dugu krimen hauek ez direla Kolonbian ematen bertako biztanleok oldarkorrek garrelako. Izan ere, tesi hori da "saldo" nahi dutena. Boterearen teknologia dago, eta zenbait talde akabatzea da bere estrategia nagusia. Gainera, boterearen teknologia horren ondorioz, baliabide naturalak ustiatzeko lan-eredu, osasun-eredu eta eredu ekonomiko zehatzak ezartzen dira. Herrialdeko iparraldean begiratzuz gero, nekazaritza-erregaietarako kanabera-sail handienak dauden lekuetan narkotrafiko handiena dagoela ikusten dugu. Estatuak herrialdea aurrera ateratzeko ekonomia-aren eta garapenaren lorpena izango balitz bezala aurkezten ditu palmondoaren eta kanaberaren sailak. "Lorpen" hori, ordea, odolez, hildakoz eta barrabaske-riaz beteta dago. Kalte ekologikoak, kalte sozialak ez dira sekula neurtzen. Ondorio horiei buruzko azterketa serioa egiteko teknikariak behar ditugu, eta mugimendu sozialak ez du nola ordaindu. Boluntarioak baino ez ditugu.

Europako estatuak azterketak egiteko eta oroimena berreskuratzeke dirua ematen diote Kolonbiako estatuari, trantsizioan eta adiskidantzan gaudelakoan. Gainera, estatuak Kolonbian gertatutakoaren bertsio ofiziala sortzen du. Hala ere, ez dute oinarritzko mugimendu soziala babesten, euren ustez demokraziaren sendopenaren eta adiskidantza-aren aurkakoa delako. Euren erruz, gauza asko ahazten ari direnez, azkenean indarkeria-agerraldiak egongo dira berriro.

**Nolako aurreikuspenak dituzue MOVICE moduan? Zuon ustez, gizarte-mugimenduaren aurreikuspenak kontuan hartzen dituen irtenbidea egongo da herrialdean?**

Irtenbidea egunez eguneko eraketa da. Ezin gara egon etorkizunean gauzak noiz aldatuko zain. Izan ere, oraintxe bertan aldatzen ari gara, egunez eguneko bidean. Hasteko, elkartasun eta konfiantza harremanak ehuntzen ditugu, behar-beharrezkoak direlako. Izan ere, hildakoak eta oinazea ez ezik, harreman sozialen hausturak ere sortzen ditu indarkeriak. Haustura horiek, gainera, nekez ehuntzen dira krimenaren ostean. Erkidegoarekiko harremana erabat apurtuta dagoenez, konfiantza-harreman horiek ehuntzen hasi beharra dago, jendeak erkidegoan berriro lan egin dezan, berriro antolatu dadin eta beste era batera pentsatzea txarto ez dagoela eta beharrezko bizi-aukera dela konturatu dadin.

Egunez eguneko horretan, oso gauza itxaropentsuak ikusten ditugu; esate baterako, ama bat nola hasten den dolua gainditzen eta bere osasun mental zein fisikoa hobetzen, inguruan lagunak dituela sentitzean. Horrek adore ikaragarria ematen digu aurrera jarraitzeko. Lorpen txoak dira, egunez egunekoak, baina erabateko zigorgabetasunean, paramilitarizazioan eta indarkerian aurrera egiteko adore handia ematen digute.

Kolonbia indarkeriaren kontrolpean dago erabat. Jarduketarako testuinguru gogor-gogorra bada ere, biktimen sarea nabarmen sendotu da. Esate baterako, abokatuen erakundeekin elkartu dira, eta zuzen-zuzenean presidentearen ardurapean dagoen Segurtasun Sail Administratiboko zuzendaria espetxeratzea lortu dute. Une honetan, hain zuzen ere, paramilitarrek egindako delituei buruzko informazioa ezabatzeagatik eta lider sozialen hilketetan inplikaturik egoteagatik dago espetxean.

Aurton, mugimenduak munduko herrialdeen babesa lortu nahi du, Nazioarteko Zigor Gorteari begiak Kolonbian jarri ditzala eskatzeko, Errepublikako presidentek eta defentsa-ministroak 2002. urteaz geroztik egindako krimenetan inplikaturik daudelako. Gaur egungo presidentearen epealdian, 2002tik 2008ra, hain zuzen ere, 3.000 lagun baino gehiago hil dituzte. Justiziaren aldeko borrokari eustea da gure itxaropena. Nazio baten aniztasun politikoari egin diote eraso, eta pentsaera bakarra onartzen ez duten guztiak akabatzen ari dira. Gero eta gazte gehiagok mugimenduarekin bat egitea da gure itxaropena, egoera desberdina izango dela amesten dute-eta. Izan ere, arriskupean bizitzea onartzen dute, nahiz eta desagertu, torturak eta erailketak egon. Indarkeria horren aurrean, elkartasunaren eta erkidegoaren alde egiten dugu eta guretzat oso itxaropentsua da mundua aldatzeko aukera edukitzea.

# CRIC eta ACIESNA

---

## Luz Mery Venegas

*Kolonbiako Caucaoko Eskualde Kontseilu Indigena (CRIC)*

## Otilio Mejía Chiripúa

*Kolonbiako Nariñoeko Esperara Siapidaara Indigenen Kabildeen Elkarte (ACIESNA)*

---

CRIC eta ACIESNA zer diren, nola sortu ziren eta zer helburu dituzten azalduko diguzue?

**ACIESNA:** ACIESNA Nariñoeko Esperara Siapidaara indigenen kabildeen elkarte da, eta Nariñoeko 5 udalerritan dago banatuta. Geure eskubideen alde borrokatzea dugu helburu nagusi. Oinarrizko lan-arloak zehaztu ditugu, eta euren inguruan lan egiten dugu: lurraldea eta baliabide naturalak, hezkuntza eta kultura, osasuna eta oinarrizko saneamendua, antolamendua eta politika eta emakumeak eta generoa. Erkidego horiek ikuspegi indigenatik aurrera ateratzea dugu helburu. Esate baterako, Esperara Siapidaara indigenen arabera hezkuntza garatzea, geure autonomia eta antolamendu-prozesua balioesten jakiteko. Beste instituzio batzuekin bilatzen ditugu itunak, Nariñoeko kostaldean, esaterako, baina zaila da jendea oso txiroa delako, analfabetismo handia dagoelako eta jende prestatu gutxi dagoelako... Hori dela eta, hezkuntza dugu helburu nagusi. Jende prestatua eduki behar dugu, gobernuari geure lurraldeak eta eskubideak eskatu ahal izateko.



**CRIC:** CRIC Caucaoko Eskualde Kontseilu Indigena da. Caucaoko departamentuko erkidego indigenen %90 baino gehiago dira gure erakundeko kideak. CRIC 1971n sortu zenez, 38 urte daramatzagu jardunean, eta agintari tradizionalak diren 115 kabildo gara kideak. CRIC bera borroka, batasun, lur, kultura eta autonomiarako plataforma da, eta lurraldea defendatzea eta geure erkidego indigenen bizi-planak garatzea dugu helburu nagusi. Caucaoko herri indigenen borrokaren sustatzaile nagusiak gara, eta geure borroka kanpora, Kolonbiaren gaineratikora ateratzen ari gara, erresistentziaren mingarekin. Mangan bertan, guztion onerako elkartzen gara, Kolonbian garatutako gerrari aurre egiteko.

Kolonbiako demokraziaz ari garela, zer neurritan urratu dituzte Kolonbiako herri indigenen eskubideak?

**CRIC:** ia-ia eskubide guztiak urratu dituztela esango genuke. Estatuak, hau da, Kolonbiako estatuak eta beste estatu batzuek multinazionaleri uzten diete gure lurraldean ahalik eta indar handienaz sartzen, eta lurrak kentzen dizkigute. Guretzat lurra ama bada, ondo baino hobeto ulertuko duzue zer den ama kentzea. Orain, FARCEkin lotunea dugula diote, FARCEko kideak garela esaten diote munduari, eta gerrilla-talde horrek ez du inolako zerikusirik gure herriarekin. Zibilak gara, erkidego indigenak gara. gure arma bakarra hitza da, eta hitzaren bidez konbentzitu nahi dugu mundua, abian gaude eta aurrera egiten dugu. Bestetik, emakumeon eskubideak urratzen ari dira. Gerra bera oso-oso kaltegarria da guretzat, gure semeak eta senarrak bete-bete presionatzen dituztelako armadan edo gerrilletan sartu daitezten. Ez batean ez bestean ez



bazaude ere, batekoa ala bestekoa zarela esaten dizute. Heriotza selektiboen bitartez hiltzen gaituzte, nor hilko duten esaten dute, "iragarritako heriotzak" dira. Hala ere, ez dugu amore ematen, gure lurra ama delako eta ama dagoen lekuan gaudelako. Beraz, gure eskubideak urratuta daude, eta gure neska gazteak poliziekin, soldaduekin, gerrillako kideekin, paramilitarrek... maitemintzen dira. Hori dela eta, gure neska ere gatazkara eramaten dituzte. Era berean, monolaborantzen proiektuak ere saltzen ari dira, eta ahalik eta fumigazio gehien egin nahi dituzte gure lurraldean.

ACIESNA: Nariñoko kostalde pazifikoan, CRICen antzeko arazo dugu. Gaur egun, armadaren kontrolpean gaude, zer ordutan irten gaitezkeen, zer ordutan sartu behar garen esaten digutelako. aldi berean, sortak ere kontrolatzen dituzte, zenbat erosi dezakegun eta zenbat ez esaten digutelako. Bestetik, drogak, sendagaiak ere badituzte kontrolpean, gerrillaren informazio-emaileak gabela diotelako. Jendea oso kezkatuta dago, askatasunik ez dagoelako. Horrez gain, laborantzen arazo ere badaukagu. Gerrillaren eta armadaren arteko gatazkaren aurrean gaude. Gerrilla laborantzen alde dago, baina armadak eskuzko suntsiketa sustatu nahi du. Izan ere, fumigazioa dute hizpide nagusi, baina konturatu egin dira fumigazioak arazo larriak sortzen dituelako lurralde indigenetan, medikuntza tradizionalerako zein sustraietarako oso kaltegarriak direlako eta ura nahiz landareak kutsatzen dituztelako. Gainera, gaixotasunak sortzen dituzte umeen artean. Horren guztiorren ondorioz, arazo larriak sortzen ari dira kostalde pazifikoan. Horregatik, armadaren eta gerrillaren arteko liskarrak

sortu dira: gerrillak ez du kostaldean eskuzko suntsiketa ezarri nahi, lurralde horietan finkatuta dagoelako. Gerrillaren eta armadaren arteko gatazkaren, istiluen ondorioz, erkidego indigenok lekualdatu egin behar gara. ACIESNA arlo horretan lan egiten ari da. Lekualdaketa horiek, hain zuzen ere, kostalde pazifiko indigenon eskubideen urraketaren funtsezko faktorea dira.

### Nolako ondorioak ditu Uriberen gobernu neoliberalaren proiektuak herri indigenen bizitzan?

ACIESNA: gobernuak zenbait programa jarri ditu abian. "Familia basozaina", esaterako. Nekazariei lana ematea du helburu. Horrela, bizirik irauteko soldata txikia dute, baina aldi berean, gobernuaren informazio-emaileak izan behar dira. Ez gaude ados, ez dugulako armadaren, gerrillaren edo paramilitarren alde egon nahi. Horixe bera gertatzen da kostaldeko erkidego indigenekin. Ez dugu gatazka horietan inplikatu egon nahi. Gobernuari eskatu diogu geure proiektuari eusteko aukera eman diezagula, herri indigena bakoitzarentzako bizi-plana dugulako bere ohitura eta azturen arabera.

CRIC: estatuak bultzatutako programak asistentzialistak dira. Erkidego indigenak "pozik" edukitzea da euren estrategia, erkidegoak euren alde egon daitezten. Programa horien helburu nagusia emakumeak dira, gu emakumeok erraz-erraz konbentzitu ahal gaituztela uste dute eta, bizi-emaile moduan, sekulako boterea dugula geure familietan. "Familiak martxan" programan, esaterako, 7 urtera arteko seme-alabak dituzten familiei ematen diete bonu bat. Era berean, Lehen eta Bigarren Hezkuntzako neska-mutilak eskolara eramateagatik bonuak ere ematen dituzte. Edonola ere, hezkuntza horrek merkatuko eta globalizazioko kontsumista bihurtu nahi gaitu. curriculum-planek, ordea, multinazionaleri eta neoliberalismoari lagundu nahi diete euren helburuak lortzen. Hain zuzen ere, erkide-





go indigenak barreatzea, nortasun indigena haustea, hauteskundeetan Uribe berriro hautatzea eta estatua bere horretan uztea da helburu nagusia. Guk, emakume indigena moduan, programa horiei aurre egin diegu beti. Erkidego indigenetan, orain dela oso urte gutxi hasi ginen baliabideak jasotzen, baina adi-adi egon beharra dago... Ezin diogu gobernuari utzi gure mundu indigena traspasatzen, ezin dugu. Bestetik, Kolonbia Planeko diruaren bidez, erkide indigenak armadan inplikatzeko dituzte, ordaindu egiten diete, erkidegoei armadaz ondo hitz egin diezaieten eta indioek euren hizkuntzan zer dioten azaldu diezaieten. Alde guztietako



informazio-emaileak daude. Martxoaren 15ean, armadako pelotoi bat nire finkan sartu zen, eta, inor ez zegoenez, txapa apurtu, sartu eta gure planta txikitxoko energia-sarea eten zuten. Gauzak eraman zituzten, kalteak eragin zituzten, den-dena hankaz gora utzi zuten eta alde egin zuten. Gero, irratian eta telebistan esan zuten gerrillaren kanpaleku bat aurkitu zutela, egia ez bazen ere. Atera kontuak. horrelako gauza asko gertatzen dira... Guk, herri indigenok, ordea, lekualdatuko ez garela esan dugu. Estatuak atera egin nahi gaitu, baina guk ez dugu amore emango: hementxe geratuko gara. Herri indigenok nazioartean laguntza bilatu dugu. Gorte Konstituzionaleko autoak lortu ditugu, herri indigenak babesteko. Hortxe gaude, eta estatuak horretarako baliabideak eskaini behar dizkigu, baina luze joko du... 0092. autoa, esaterako, emakumeen lekualdaketa buruzkoa da. Gorteak eta txostengileek egoera oso larria zela ikusi zuten, estatuak emakumeen atentzio eta prebentziorako plana egin behar zuela adierazi zuten. Estatu oso trebea denez, "Familia martxan" edo "Familia basozainak" programak diseinatu ditu berehala, baina ez digu zer nahi dugun galdetu. Horrelako planen bidez, estatuak ohitura ez-indigenetan trebatu nahi gaitu, baina ez diogu halakorik egiten utziko. Ez bagoaz, ordea, gure lurraldeak arpilatzen jarraituko dutenez, ez dugu inolaz ere amore ematerik. Estatuaren proiektu neoliberal osoak herri indigenon eskubideak urratzen dituzte, jakin badakigu beste erakunde batzuekin bat egin behar dugula, itxaropenari eusteko. Jakin badakit gure ohiturei esker indigenok munduko biltegia garela: munduko beste leku batzuetan lurrik lehertzen ari badira ere, gureak bere horretan daude. Bota egiten bagaituzte, mundua galtuta egongo da. Uste sendoa daukat.

#### Zein dira mingan elkartutako herri indigenen eskari eta aldarrikapen nagusiak?

CRIC: lehenengo eta behin, lurraldea defendatu beharra dago. Lurrik baduzu, bizia duzu. Zertarako bizi lurrik gabe, non biziko zara? Bigarrenez, herri indigenen Giza Eskubideak errespetatu behar dira, eta presioa egin behar da, herri indigenen adierazpena sinatzeko. Beste aldarrikapen batzuk arlo kulturekoak dira: norberaren osasunerako eskubidea, hau da, gure benetako medikuntza tradizionala medikuntza alternatiboa izatea; eta norberaren hezkuntzarako eskubidea. Arlo horretan aurrera egin dugun arren, estatuak ez du oraindik behar bezala legezatu. Ingurumena oso garrantzitsua da gure herrirentzat. Komunikazioa ere kontuan hartu beharra dago: gure komunikabideen aldeko borroka handia. Kolonbian, ez dago informazio-bide erkiderik: lizentzietan oso-oso tarifa garestiak ezartzen dizkigutenez, ezin ditugu inondik inora ordaindu. Kolonbian, komunikazioaren transnazionalak daude, baina guretzat ez dira batera egokiak. Esate baterako, giza eskubideen urratzaile handienak gerrillak direla esaten dute bertan, eta gezurra da erabat, giza eskubideen urratzaile handiena Kolonbiako estatua delako bere estrategia osoaren eskutik. Dena dela, mundu-mailako estrategia-aren zati bat baino ez da, eta gutxiengodunak akabatzea eta burgesia beti-beti goian egotea da helburu nagusia. Amaitzeko, herri indigenon arazo guztien artean, txirotasuna handi handia dela esan nahi nizuke. Erakunde batzuk lagundu egiten digute, eta eskerrak eman nahi dizkiet. Izan ere, elkarteak sendotzen laguntzen digute, eta oso interesgarria da, erakundea indartuz gero, hobekuntzak egin ahal izango ditugulako.

## Johanna Cáceres

*Kolonbiako Nekazaritza eta Abeltzaintzako  
Federazio Nazional Sindikala (FENSUAGRO)*

**FENSUAGRO zer den eta zuon helburu nagusiak zein diren azalduko diguzu?**

FENSUAGRO Nekazaritza eta Abeltzaintzako Federazio Nazional Sindikala da. Bigarren mailako erakundea da, eta nekazaritza-sektoreko erakundeak elkar-tzen dira bertan: nekazaritza-industriako langileen elkarte sindikalak, nekazarien elkarteak edo nekazari txikien sindikatuak. Federazioak Kolonbiako zenbait eskualdetan du agerpena. Nekazarien aldarrikapenen eta justizia soziala kontuan hartzen duen nekazaritza-eraldaketa integralaren alde lan egiten dugu. Hau da, lurra birbanatzea nahi dugu, baina aldi berean, nekazarien bizi-baldintzak ere hobetu nahi ditugu. Lehen, lurjabeen aurka borrokatzen ginen (lur-meta handiak dituztelako), baina orain, baliabide naturalez jabetzeko asmoz lurraldeak okupatzen dituzten transnazionalen aurka borrokatzen gara, euren erruz biztanleak lekualdatu egin behar direlako. Hori dela eta, nekazaritzako kontraerreforma, ingurumenaren suntsipena eta nekazaritzatik bizi diren nekazarien eta indigenen sektorearen higadura sustatzen da. Elikaduraren subiranotasunaren ikuspegitik lan egiten dugu, kanpo-merkatuen inposaketan aurrean, prozesatutako eta latoratutako elikagaiak kontsumitzeko dioskun merkatu-joera hori apurtu nahian, herri nekazari indigenen nortasunaren eta egituraren kalterako delako. Aldi berean, FENSUAGROk nekazarien, langileen eta herritarren batasuna bultzatzen du, zenbait sektore elkartzen dituen herri-batasunerako prozesuan: ikasleak, sindikatuak, erkidego afroinordekoak eta erkidego indigenak.

**Zein dira Kolonbiako Giza Eskubideak urratzen dituzten mehatxu eta eragile nagusiak? Emakumeen eskubideak are gehiago urratzen ote dituzte?**

Garatutako borroka guztietan, lurren aldeko borrokan ere bai, zapalkuntza eta judizioz kanpoko atxiloketa handiak gertatzen dira, eta zenbait kidek prozesu horiek jasaten dituzte. Gaur egun, federazioaren aurkako atxiloketa-prozesua dago abian, Kolonbiako gatazka armatua liskar horren jatorria oso-osorik ezkutatzeko iragazkia delako. Gizarte-mugimenduak matxinoekin nahasten dituzte, gizarte-erakundeak eta talde matxinatuen artean ustezko lotuneak daudelakoan. Erakundeok jazarrita gaude, eta tratamendu militarra jasotzen dugu, estatuak matxinoei ematen dien berbera, alegia. Estatuak gatazka

armatuari aurre egiteko orduan, erkidego nekazarien arazo ekonomikoak eta sozialak zein diren ez dakie-nez, ez dago gatazkaren muinera joaterik, zer akatsa dauden zehazteko eta irtenbideak bilatzeko.



Emakumeok, antolaeraren eta lanaren zama ez ezik, zainketaren zama ere hartzen dugu geure gain. Hori dela eta, estatuak edo sistema ez dira gauza askotaz arduratzen, emakumeok geure kabuz konpontzen ditugulako. Emakumeen giza eskubide asko urratzen dituzte, eta gure posizioa oso ahula da oraindik ere, haurrak gure ardurapean daudelako. Emakumeek horrelako egoerak konpondu behar dituztenez, ez dute antolaerari erreparatzeko astirik eta indarrik. Kulturari begira ere, zailtasunak daude, bat-batean emakumeak estigmatizatzen dituztelako antolaketa-prozesuetan parte hartzeagatik. Dena dela, hezkuntzaren bidez, oinarrizko erakundeak eurak sendotuta gainditzen dugu hori guztiori. Iaz, bete-betean hasi ginen lan egiten, emakumeen partaidetza erkidego eta erakundeetan sustatzeko asmoz.

Gatazka armatuaren garapenean eta mugimenduak jasandako zapalkuntzan, gizonak dira helburu nagusi, emakume kideen aurka ere badoazen arren. Hala ere, hildako eta atxilotutako gehienak gizonak dira. Hori dela eta, emakumeok aurrera jarraitu behar dugu, suspertu egin behar gara, geure bizitzak berriro antolatu behar ditugu eta gure Giza Eskubideak berriro urratzen dituzte, gizonei bizitzarako eskubidea urratzen dietenean edo atxilotuta daudenean.



FENSUAGRON, Giza Eskubideen Lantaldea dugu, eta, egoera horiei guztiei aurre egiteko estrategietan pentsatuta, eskualde-ekimenetan egituratzen gara, zenbait udalerritako oinarritzko erakundeetako herri-sareetan, alegia. Horiek horrela, eskualde batean zer-bait gertatzen denean, komunikazioa arina izango da eta zer-bait egin ahal izango dugu. Hori dela eta, eskualdeak ez dira komunikaziorik gabe geratuko, eta zer gertatu den jakin ahal izango dugu. Era berean, judizioz kanpoko atxiloketen aurkako eta preso politikoen aldeko kanpainak ere garatzen ditugu. Sentsibilizazio eta prestakuntza kanpainak antolatzen ditugu nazio-mailan zein nazioartean, laguntzak eta babesak bilatzeko eta kideen askatasuna lortzeko.

#### Nolakoa da Kolonbiako nekazarien egoera?

Une honetan, estatuak nekazaritza eta abeltzaintzaren arloan garatzen duen politika nekazaritzaren kalterako da erabat, araututako ekoizpen-politiken eskakizunek ekoizle txikiak baztertzeko dituztelako, halakorik betetzeko aukera ez edukitzean. Izan ere, nekazaritza-sektoreko erakundeak desegiten ari dira. Kolonbian, aniztasunean ekoizteko behar besteko ahalmena dugun arren, bost ekoizpen-kate baino ez dira lantzen nazio-mailan: kakaoa, espezie egurgarriak, zitrikoak, Afrikako palmondoa eta esnekiak. Kate horiek, gainera, enpresen kontrolpean daudenez, prezioak inposatzen dizkiete nekazari ekoizle txikiei.



Ekonomia nazionalari eusten badiogu, mugatu egingo gara, eskualdeak produktu bakar batean espezializatu dira eta enpresa baten menpe egongo dira. Beraz, nekazariak autonomia galduko dute, eta euren bizibaldintzek txarrera egingo dute, elikagaiak ekoizten uzten ez dietelako merkatuaren menpe egon daitezten. Landa-arloko diru-sarreraren logika ezarri da, landa-ingurunean lanerako merkea sortzeko. Horren ondorioz, baldintza horietara egokitu ezean, euren lanerako hirian eskaini beharko dutenez, miseria-gerrikoak sortuko dira bertan. Horrelaxe bizi dira landa-ingurunean. Horrez gain, paramilitarismoak bertan duen zeresana ere hartu behar da kontuan. Jendeak egoera hori onartzen ez badu, paramilitarismoa agertzen da laster batean. Lurraldea kontrolatzeko eta biztanleak berrantolatatzeko estrategia da erabat.

Kapitalak behar duen merkatu-logika da, bai eta "elikaduraren segurtasun" hori ere. Elikaduraren segurtasunaren arabera, zerekin jan eduki beharra dago. Hala ere, FENSUAGROK elikaduraren subiranotasunaz hitz egiten duenean, geure lurzoruen, klimaren eta kulturaren ezaugarrien arabera ekoiztea esan nahi dugu. Nola ekoizti erabakitzen dugu, eta horren arabera kontsumitzen dugu, merkatuaren logikak ezarritakoa alde batera utzita. Era berean, esparru horretan ere gertatzen dira lekualdaketak, judizioz kanpoko atxiloketak, positibo faltsuak eta era guztietako egoerak.

#### Nolako ondorioak sortzen dituzte lekualdaketek nekazarien artean?

Eskualde batzuetan, matxinoen eta indar militar edo paramilitarren arteko gatazka militar gogorrek gertatu dira. Transnazionalak interes ekonomiko zehatzak dituzte zenbait eskualdetan, meategiak, meatzaritzako baliabide estrategikoak daudelako edo egurgintzarako oso egokiak direlako edo Afrikako palmondoa ekoizteko nahi dituztelako. Proiektu horiek zapalkuntza militarri esker jartzen dira abian, eta horixe bera izan da paramilitarismoaren logika leku horietan. Mapa batean, lekualdaketen eskualdeak kokatzen badituzu eta, gainean, interes estrategikoen beste mapa bat jartzen baduzu, bat datozela ikusiko duzu.

Horrez gain, lekualdaketen ondorioz, nekazarien hezkuntza-maila urri-urria denez, hirian bizirauteko aukera gutxiago dituzte. Era berean, hirian bertan ere, biziraupen-aukerak oso-oso itxiai dira, baita profesionalentzat ere, langabezia-tasak handiak direlako.

#### Nolako zeresana du Kolonbiako estatuak giza eskubideen urraketan?

Logika neoliberalaren eta giza eskubideen errespetuaren arteko kontraesana erabatekoa da. Ekonomia egokitzeko, ekonomia irekitzeko eta landa-ingurunea modernizatzeko neurri horiek guztiek Giza Eskubideak urratzen dituzte bete-betean. Neurri neoliberal horiek ere indarraren bidez ezartzen dira, eskubide zibil eta politikoak urratzen dituztelako, bai eta bizitzarako eskubidea, askatasunerako eskubidea, adierazteko askatasunerako eskubidea eta eskubide ekonomiko, sozial eta kulturalak ere. Lurraldea kontrolatzeko, nekazarien lurak desjabetzen dituzte, gainera. Landa-eremuetan, nekazariak eta indigenak ez dute hezkuntza eskuratzeko aukerarik, eta onespene kulturalik ere ez dago.



Merkatuaren logikaren arabera, nekazariak apurka-apurka desagertuko dira, "landa-ingurunea modernizatzeke" orduan oztopoak jartzen dituztelako. Sektore hori, bere ohiturak eta iturburuak, basoak zein natura zaintzeko egin duen ekarpen historikoa ez ditu inork ezagutzen eta gutxietsi egiten dituzte.

### Komunikabideek ere badute ezagutza-falta eta gutxiespen hori?

Gaur egun, Kolonbian, gatazkaren egoera oso-oso polarizatuta dago. Beraz, erakunde sozialaz hitz egiten baduzu, matxinoekin lotzen zaituzte, gobernuaren aurka zaudelako. Nekazarien manifestaldiak egiten direnean, matxinoek bidali dituztela esaten dute edo ibilaldian infiltratu diren milizianoak direla. Horrelaxe jokatzen dute komunikabideek. Hartara, hiriko jendearen ustez, erkidego nekazariak gerrillaren laguntzaileak dira. Kolonbiako egoera zentzu horretan irakurriz gero, beharbada hobe da biztanle horien aurkako gatazka militarra eta zapalkuntza garatzea, ez delako inoiz ikusiko zein diren nekazariak mobilizatzeke eta nekazariak kontuan

hartzen dituen garapena eskatzeko dauzkaten benetako arrazoiak.

### FENSUAGROk nola ikusten du giza eskubideen etorkizuna?

Egoera oso larria da, Kolonbian azkartzen ari den "garapen-prozesu modernizatzaileak" indar handia duelako eta komunikabideek eragin handia dutelako pertsonen pentsaeran. Edonola ere, antolatzeke ekimen handia ere badago. Astinduak astindu, nekazarien mugimendua indartsua da, bertako lider asko atxilotuta badaude ere, jazarri egiten badituzte ere eta erailketa ugari egon badira ere. Dena dela, ez ditugu banderak jaitziko, eta Kolonbiako beste erakunde sozial, langileen erakunde, ikasleen erakunde, auzoetako erakunde eta hiriko erakundeekin lan egiten jarraituko dugu zerbitzu publikoen, etxebizitzaren, mugimendu indigenaren, afroinordekoen mugimenduaren... alde. Gero eta mugimendu gehiago sortzen ari direnez, giza eskubideen aldeko borrokari eusteko adorea dugu benetan.



Nazioarteko Foroa

# Giza Eskubideen Aldeko Borroka Berriak Gizarte Aldaketan

2009ko urriak 17 eta 18

Donostia, Miramar jauregia




**ONDORIOAK**



Geure ingurura begiratu dezagun, geure buruari begiratzeko. Zer garen edo zer egiten dugun ikusi dezagun, geure burua ezagutzeko, baina ez talde murriztu moduan, gaur egun gizaki moduan dugun egoeraren dimentsioan baizik. Egoera hori, gainera, merkatuari eta bizi-arpilaketari lehentasuna ematen dien sistemaren mehatxupeko etorkizuna da. Etorkizun hori, ordea, ezin izango da gauzatu, orain aldaketak egiten ez badira, orain ustezko aldaketa horren aldeko borrokak egiten ez badira. Nahiz eta orain borroka horiek arrakastatsuak direla uste izan. Maiatzaren plazako amek irakatsi diguten bezala: galtzen diren borrokak bertan behera utzitakoak dira. Seme-alabek gogoratu ziguten, hau da, euren seme-alabek, historiako seme-alabek. Guztiek. Gaur egun, guztion eskubideak defendatzea gizarte-aldaketaren aldeko borrokak eurak direla esan daiteke. Irudikatu egin dugu, baina ez dugu testuingururik gabe pentsatu. Ez dugu aukera politikorik gabe proposatzen. Ez dugu oroimenik gabe baieztatzen. Izakien eta ideien uztarketa horren ondorioz, bost ikasgai eta hausnarketa-esparru jorratu ditugu, gutxienez.



**1** François Houtart eta Carlos Tablada irakasleek, beste hizlari batzuen laguntzaz, honako honexen adierazgarri den azterketa bateratua egin dute arlo honetan: kapitalismoaren izaera kriminala, gizakiak eta natura sarraskitu eta suntsitzeko joera eta krisi-dinamikak. Esate baterako, gaur egungoa bezalakoak: luzeak, orokorrak, hondagarriak eta behin betikoak. Izan ere, gero eta premiazkoagoak dira kapitalismoak hautsitako mugetatik sortutako alternatibak. Frogetan oinarrituta, onartu egin behar da kapitalismoa iraunkorra ez dela, ibilbide homizida eta suizida horri ekitea bidegarria ez dela eta, suntsitu nahi diguten itxaropenaren kultura landu behar bada ere, kultura hori lortzeko orduan kapitalismoarekin apurtu beharra dagoela, gero eta espazio eta denbora gutxiago dugulako. Houtartek 2005ean Mundubat-ek ere antolatutako beste topaketa batean esan zigun bezala: jendea gaur, oraintxe bertan eta bihar hiltzen da. Beraz, borroka premiazkoa da, hil ala bizikoa da. Hemen, gurean, indarkeria eta miseria ezkututzen dituzten gizarte aberats hauetan, premiazkoa bada, are gehiago gaur egun gosearen, gerraren, okupazioaren eta arpilaketaren zapalkuntzapean bizi direnentzat. Jakin badakigu premiazkoa dela eta itxaropenik ezari zein etsipenari aurre egin behar diegula.





**2** Giza eskubideen aldeko borroka berriak eta zahar-  
 rrak urriak eta behin-behinekoak dira, pantomi-  
 ma hutsak dira, sistema kapitalistaren eta bertako  
 legeen edo logiken agerpena kausala dela eta ausazko-  
 tasunaren menpe ez dagoela onartzen ez badute. Aste  
 honetan bertan, gure ingurunean, zenbait erakundek  
 adierazi dute txirotasunaren aurka borrokatu eta ha-  
 ren kontra matxinatu behar garela. Horiek horrela,  
 egunotan, sistema bidegabearen zenbait ondorioren  
 berri ematen da kanpaina batean, baina ez da erabat  
 eta zentzuz zehazten zein diren gizakien eguneroko  
 hautaketa horren sustraiak. Ez dago txirotasunaren  
 aurka aringarrien bidez borrokatzerik, kapitalismoaren  
 arrazionaltasun harraparia kontuan hartu gabe, alegia.  
 Krisi kapitalista zibilizazio-krisia da, eta, kapitalis-  
 moaren nagusitasun orokorraren nahierara, krisia pla-  
 neta eta espezie mailakoa da, lurreko bizimoduarekin  
 dauka zerikusia. Krisi finantzarioa eta ekonomikoa ez  
 ezik, energetikoa, elikadurakoa, klimatikoa, politikoa  
 eta etikoa ere bada. Ulermen hori, esparru hori, mun-  
 duko testuinguru hori eta arrazionaltasun suntsitzai-  
 lea den kapitalismoaren inpugnazio hori lortu ezean,  
 giza eskubideen defentsa iragankorra da oso, hutsala  
 ez esatearren.



**3** Hori dela eta, gizarte-borrokak eta giza eskubi-  
 deen aldeko aurrerakuntzak handiagoak dira, ka-  
 pitalismoaren aurka eta kapitalismoaren ostean  
 mobilizatu beharra dagoela onartzen dutenean. Beraz,  
 eskubideak eurak eta euren legezketasuna ezarritako  
 harremanetan sustatzeko, ondasun bateratuen oina-  
 rriarekin erkatu eta gainditu behar da, ondasun batera-  
 tuaren eskubidea, osagaia eta bidea da-eta. Era berean,  
 horretarako irizpideak premia sozialetatik, giza bizi-  
 zatik eta duintasunetik, planetaren gaitasunaren babes  
 eta birsorkuntzatik ezarri eta erabili behar dira eta ez  
 truke-balioetik eta metatzeko ekoizpenaren logikatik. Ez  
 dago kapitalismoa legezketasunik gabe uzterik eta ka-  
 pitalismoaren ostekoa eraterik, Giza Eskubideak zen-  
 bait askatasun soildu edo baldintzatu izango balira be-  
 zala adieraziz gero, hau da, xantaia nagusi izanez gero:  
 muga gurutzatu ezinik egotea, nahierara aurre egiteko  
 gai ez izatea, beldurraren beldurrez isilik egon behar  
 izatea, zigorgabetasuna onartzea, beste alde batera be-  
 giratzea eta borroka sozialen kriminalizazioa onartzea.  
 Gaur egun, horri aurre egiten zaionez, zapalkuntza da  
 nagusi. Gaur egun, batzuek ondasun bateratuen pribati-  
 zazioaren aurkako batailak irabazi dituztenez, sofisma  
 eta eraso neoliberal berriak daude. Zenbait herrialdetan  
 integrazio eta jabeakuntza prozesu herritarrak daudenez,  
 estatu-kolpeak edo gobernu neofaxistak agertu dira.  
 Azken aspaldion, errealitateak eta utopiak ehundu egin  
 daitezkeela egiaztatu denez, kapitalismoak eta bertako  
 gobernu-agentziek, enpresek eta elkarte transnazio-  
 nalek euren mekanismo zaharrak edo bakanak berri-  
 jartzen dituzte abian, gora egiteko edo gizartea zerbait  
 eraldatzeko prozesuei aurre egin nahian, Hondurasen  
 gertatu den bezala. Bestela, erregulazioak edo eraldake-  
 tak sustatu eta agindu egiten ditu, helburua zibilizatzea  
 eta ez eustea delakoan.



**4** Kriak sakon aztertzeko proposamenak azaltzen dira. Zenbait lekutatik datoz: hegoaldea, beheko aldea, iparraldea, herri indigenak, erkidego nekazariak, sareak, zenbait gobernu eta nazioarteko egitura gutxi. Giza talde askok ezarritakotik haratago ikusi eta joaten dira, eta herrien eskubideak aldarrikatzen jarraitzen dute: lurralderako eskubidea; emakume, langile, nekazari, indigena, afroinordeko eta langabetuen eskubide integralak; elikaduraren subiranotasuna; zigorgabetasunaren, beroketa globalaren eta militarismoaren aurkako borroka; eta, oro har, emantzipaziorako borroketarako dimentsio, kontzeptu eta subjektu berriak. Horren guztiorren lekukotasuna eman da hemen. Horrela, gizarte-aldaketaren aldeko borrokarako eskubidea ehuntzen dute. Horrelako borroka batzuk ereduaren barruan gertatzen dira, eta ez dira bortitzak. Beste asko, ordea, kanpoan ematen dira eta horrelaxe jarraitu behar dute. Izan ere, indarrez aurre egin behar diote edo giza eskubideen osagaia den aukerari edo baliabideari uko egin gabe, behintzat. Horra hor Israelek eta bere bazkideek Palestinako herriaren aurka garatutako estrategia maltzurak.



**5** Geure elkartasun-moduak kritikatzeko saiatu gara. Elkartasunak, hain zuzen ere, testuinguruak hartu behar ditu kontuan, herrien eta ez merkatuen arteko borrorak egituratu behar ditu, hau da, eskubideak dituzten gizakien artekoak eta ez gauzen artekoak. Ez dago kapitalismo onik, kapitalismo horren eraldaketek ez gaituzte duintzen eta ez dute bermatzen gizakiak bakean biziko direnik ez euren artean ez naturarekin. Beraz, ezinbestekoa da izpiritu autokritikoa edukitzea, oraintsuko krisi globalaren ondorioz sistema menderatzaile horren arrakalak eta behin betiko ezintasunak nabarmendu baditu ere, argi eta garbi utzi digulako eragin alternatiboaren aukerak urriak direla eta erresistentziak ahuleziak dituztela, boterearen aurrean inertzia eta desfaseei aurre egiteko orduan. Azken batean, herrien eta euren borroken esperientziaren maila eta ikasbideak onetsi behar ditugu. Ez ditugu elkartasun konprometitua teoria eta praktika alde batera utzi behar, ez duelako inposatzen eta eskaintzen eta emantzipaziorako urratsak zein jabekuntza-adierazpen ugariak sustatzen dituelako hegoaldeko nahiz iparraldeko herrialdeetan. Hartara, Giza Eskubideak erabiltzeko eta eratzeko esparruak egituratzen dira, prozesu eta mugimendu sozialetan oinarrituta. Badago giza eskubideen ideia estatikoa eta euren azaleko defentsa gairak. Arlo formalean ez geratzeko, atzo, urriak 18, kalera irten ginen hemen, Donostian. Lotsagatik, gutxieneko koherentziagatik.

Foroak borroka bateraturako agendak hurbiltzea eta proiektatzea eta gertaera kolektibo bezain xumea sortzea izan du helburu. Erotasunez eta buru-argitasunez landutako lur apur bat baino ez dugu jarri, gaur egun zuhaitzak landatzen dituzten emakume eta gizonentzat, etorkizunean eraikin aurritsuak barik zuhaitzak egon daitezten. Eraistear dagoenari apur bat lagundu diezaiozun. Gaur egun, krisi kapitalistari buruz etengabe hitz egiten dugunez, bere boterepean egon beharrean, aurre egin diezaiozun, aurrera egin nahi badugu. Erresistentzietatik, gure premiazko itzaropenetik ikasi dezagun. Zapalkuntzei aurre egiteko, bizitza zein duintasun alternatibak eratu ditzagun!





Desde Mundubat queremos agradecer a todas las personas que han colaborado para hacer posible esta publicación, de manera especial a las siguientes personas voluntarias de Mundubat:

Itziar Rasines Pereda, Sara Melgar Robleda, Sara Barreiro Ruiz, Natalia Escolar, Ana Pastrana González



argazia/foto: Enrique Pimoulier

Mundubat-ek eskerrak eman nahi dizkie argitalpen honetan parte hartu duten guztiei, baina batez ere, Mundubat-eko honako boluntario hauei::

Itziar Rasines Pereda, Sara Melgar Robleda, Sara Barreiro Ruiz, Natalia Escolar, Ana Pastrana González